

ataria

Etorkizuneko aukera

2018-04-13

853. zenbakia

107.6 fm

www.ataria.eus



AZKEN ETXEBIZITZAK



1ºA : 156.000 € + BEZ
1ºB: 159.000 € + BEZ

AMEZKETA - San Bartolome, 35

2º eta 3º gelako etxebizitza, garaje itxia, trastelekua.



2 gela: 185.000 €tik
3 gela: 200.000 €tik

ANOETA - Iturtxulo kalea,1

235.000 € + BEZ aurea



VILLABONA - Maiazaren lehena plaza

210.000 € + BEZ aurea



IRURA - Kale txiki

VPO etxebizitzak: 3 gela eta gareje itxia.

155.070,47 € + BEZ aurea



ORDIZIA - Filipinak kalea 34-36

275.000 € + BEZ aurea



ALEGIA - Beistin auzoa

155.000 € + BEZ



IRURA - Laskibar auzoa,15

Eta zuk, zer egingo duzu?

Orain dela urtebete ekin nion urte askotan nire etxea izan zen leiho honetatik zutabecto hau idazteari. Segituan eman nuen baiezkhoa, eskualdeko emakumeon ahotsa ordezkatzeko aukera baitugu bertan. Astero-astero esparru anitzetako emakumeok adierazteko duguna zabaltzeko plaza da honakoa. Eta gogoratzen dut, bai, nire lehen zutabea Martxoaren 8ko ingurumarian idatzi nuela. Lehen urteurrena ere ez da desberdina izango, eta urteurren guztiak horrela izaten jarraitzea erabaki dut, egun honen beharrik ez dugun arte, behintzat.

Hilabete pasatxo da, bai, Martxoaren 8a ospatu genuela. Aurretik eta ondoren soka luzea ekarri duen greba deialdiak eraman zituen aurtengoan titular eta tertulia minutu guztiak. Euskal Herrian ere mundu mailako deialdi honekin bat egin genuen emakume askok eta askok. Ordu batzuez gure lanpostua, gure gain erortzen diren zaintza, garbiketa, antolaketa,... lanak utzi –eskerrik asko, aitona, hori posible egiteagatik– eta kalera irten ginen ozen oihukatzeraz eta irudikatzeraz gu gabe mundua geratu egiten dela. Historikoa izan zen. Eta geratu egin genuen mundua, eta gera genezake berriro ere. Argi dago oztopoz beteriko ibilbidea dela gurea, gizonezkoek gainditu behar ez dituzten traba ugari daudela gure bidean eta guztion esku dagoela traba horiek desagerraraztea behin betiko.

Diskurtsoz, guztiok oso feministatzat dugula geure burua, baina egunerokoan kosta egiten dela pribilegioei uko egin eta lanean buru-belarri jartzea desberdintasunak desagerrarazteko



**NOELIA LATABURU
ORTIZ
IRAKASLEA**

Baina ez ginen guztiak irten kalera. Emakume askok ez zuten bat egin mobilizazioekin. Askorentzat ez omen da borrokatzeko modu egokia. Erdia eta erdia izanda, nola eramango dugu, bada, borroka guk bakarrik? Gizonezko askoren leloa ere izan zen ea beraiek zertan parte har zezaketen egun horretan; deialdia emakumeontzat izanik, zer ekarpen egin ote zezaketen beraiek. Eta, argudio horri eutsiz, askok ez zuten beren ahaleginarekin lagundu greba honetan errealitatearen benetako irudikapena eman zedin. Ekarpena? Nahi adinakoa izan zitekeelakoan nago: Jai hartu eta mobilizazioekin bat egin; enpresako emakumeei soldatarik ez kendu greba egiteagatik; zaintza eta bestelako lanak bere gain hartu ordu horietan zure bikoteak, amak, arrebak, alabak, lagunak,... greba egin zezan; egun horretako soldata mugimendu feministari eman, ... Horra hor hamaika aukera.

Eta zuk, aita, seme, anaia edo lagun zarenak, zer egin zenuen Martxoaren 8an? Zer ekarpen egin zenion greba feministari? Zure ohiko egunerokotik, zer egin zenuen desberdin? Izango da galdera honi «jai egin nuen» edota «zaintza nire gain hartu nuen» erantzungo didanik. Baina, ingurukoei begirata, beste askok beren egunerokoari heldu zioten milimetro batean ezertxo ere aldatu gabe, beste edozein egunetan bezalaxe, alegia.

Eta horretan datza, hain zuzen ere, arazoak. Diskurtsoz, guztiok oso feministatzat dugula geure burua, baina egunerokoan kosta egiten dela pribilegioei uko egin eta lanean buru-belarri jartzea desberdintasunak desagerrarazteko. Bada, hori da guztion lana. Nork bere gain hartzea egin dezakeenaren ardura. Eta hau guztia esanda, badakigu, bai, zer egin zenuen M8ko greban. Orain, esaguzu: 2019koan, zer egingo duzu?

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Naiara Roldan de Aranguiz
KUDEATZAILEA: Iban Urdapilleta Alkizalete **TELEFONOA:** 943 655695 **WEBGUNEA:** www.ataria.eus
POSTA ELEKTRONIKOA: ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 - 687 4100 33 - 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 - publi@ataria.eus

ATARIARI ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:



URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaleko irudia:
Ibai Luque



Aurreko irailean egindako kultur astean egin zuten ikasturte honetako lehenengo mendi irteera. ATARIA

04

MAITE DITUZTE MAITE, HERRIKO BAZTERRAK

Ikasturte honetan mendi ibilaldiak egiten ari dira hilero Bidania-Goiatzen, familia giroan. Bi herritarrek prestatzen dituzte ibilbideak, eta ibiltariak naturaz gozatzeko eta harremanak sendotzeko aukera dute.

Imanol García Landa

Herriko kultur astearen barruan, azken bi urteetan mendi irteera antolatu dute Bidania-Goiatzen. Herritar guztiei zuzendua, eta batez ere haurrei begirakoak izan dira. Iosune Orbegozo herritarrek azaldu duenez, «azken kultur astean, irailean, oso gustura aritu ziren haurrak, parte hartze handia izan zen, eta egun horretan bertan hasi ginen pentsatzen: zergatik ez antolatu horrelako irteerak hilabetean behin?».

Kultur astekoa antolatu zutenei, Iban Urdapilletari eta Maite Larrarteri, galdetu zieten ea animatuko ziren prestatzera, eta hauek baiezkota eman zuten. Eta horrela hilero elkartzen joan dira, eta dagoeneko beste sei mendi irteera egin dituzte ikasturte honetan zehar. «Hilabete bakoitzeko azken larunbatetan izan ohi da hitzordua», esan du Orbegozok. Arratsaldeetan egin ohi dute ibilaldia, normalean 15:30ean abiatuz.

Herritar guztiei zabaltzen zaie parte hartzeko gonbita. Ibilaldiaren egunaren aurreko egunetan zehazten da hi-

tzordua, eta ibilaldiak zenbat iraungo duen esaten da eta nondik izango den, nahi duen guztiei parte hartzera gonbidatuz. Hori bai, haurrek arduradun batekin joan behar dute. Bi ordu eta erdi inguruko ibilaldiak izan ohi dira.

Hogei pertsona inguru animatzen dira parte hartzera ibilaldietan, eta eguraldiak laguntzen duenean gehiago, 30etik gora ere izan dira parte hartu dutenak. «Eguraldi txarra egiten duenean gogo gutxiago izaten da, baina ez da behin ere ibilaldirik bertan behera geratu eguraldia dela eta», esan du Orbegozok. «Haurrek gustura parte hartzen dute, eta gurasooi tira egiten digute joateko. Esan daiteke familia giroan parte hartzen dugula».

Egitasmo horrek herriko giroari ekarpen «oso positiboa» egiten diola gaineratu du Orbegozok. «Talde ezberdinetara zabaltzean, adin ezberdi-

netako herritarrak joaten dira, hasi bi urtetik eta aitona-amonetaraino. Gure arteko harremanak sendotu, naturaz gozatu eta mendizaletasuna bultzatzen da. Harreman politikak sortzen dira mendi ibilaldi horietan».

Herriko txokoak ezagutzen

Gainera, mendi ibilaldi horien bitartez herriko bideak eta txokoak ezagutzeko aukera izaten ari dira. «Askotan gertatzen da ez ditugula gure inguruak ezagutzen», esan du Orbegozok. «Gure haurrek bazter horiek ezagutzeko modua da, eta baita gurasook edota beste herritarrek ere. Nik Bidanian hamabi urte daramatzat bizitzen eta ibili garen leku askotatik pasatu ere ez nintzen egin». Eta txokoak ezagutzeaz gain, ederrak direla ere jabetzen dira: «Altxor politikak daude, eta gainera istorio askoren berri izaten duzu, adibidez, baserriren bat ez zenuena ezagutzen».

Aurrera begira Orbegozori gustatuko litzaioke mendi ibilaldiekin jarraitzea. «Prest baldin badaude ibilaldiak pentsatu eta irteerak prestatzen dituztenak lan horrekin jarraitzeko, nik pertsonalki jarraituko nuke», esan du, eta eskertu die Urdapilletari eta Larrarteri egiten ari diren lana. Orain arte egin dako zazpi ibilbideak ezberdinak izan dira, eta Hernio inguruak-eta askotarako ematen duela gaineratu du.

Bestalde, pentsatzen ari dira ikasurte amaierarako herritik kanpo aste-buru bat pasatzera joatea ere, aterpetxe batean lo eginez. «Ideia bat da, baina ikusita esperientzia polita izaten ari dela, herriko jendeari zabaldu eta pare bat egun pasatzera joango ginatke. Halere, oraindik zehaztu gabe dugu ideia hori».

GUTUNAK

Aralarko Baserritarrak Elkartearen adierazpenen harira idatzitako gutuneko iritziei erantzun bat

2018ko apirilak lauan aldarrikapen, adierazpen eta erabakiak hartzeko eguna goizetik iluntzera. Goizean 10:00etan Ordiziako azoka gunean aldarrikapena, non ardi larru tartean izen bat, arduradun bat eta berak ematen dituen pausoez, Aralarko Baserritarrak jasaten dugun iraun ezinaren adierazle. Aipatutako hau Goierriko herri bateko zinegotzia eta Enirio-Aralar Mankomunitateko (E.A.M.) ordezkari ere bada, beraz, bide horretatik ulertzen dut bere izena jarri izana eta ez inola erakunde horietan ardura ez duen eko-urbanitarik eta inoiz urbanitarik, uste dudalako besteok adierazpen askatasunean oinarritutako aldarrikapenak egiten ditugula. Hau horrela, gutunean pozoinduta eta gure ahoan euren hitzik ez jarri mesedez beste batean. Urbanita hitzari «eko» aurrizkia jartzean berriz, herri-hiritik, landa ingurunera eta baserriko jarduerara sasi-ekologisten betaurrekoe-kin begizatzen duenaz ari gara, benetako ekologistak (tarteko, baserritarrak) beharrezkoak ditugulako eta etorkizunean ere, bide laguntzat nahi ditugulako. Eguerdian E.A.M.ko lehendakari eta Ordiziako alkatea Jose Miguel Santamariari artzain makila eman zitzaion, bertsoarekin lagunduta, egiten duen lana eskertzeko E.A.M.an natura eta abeltzaintza uztartuz beren alde eginez. Arratsaldean, urteko Mankomunitateko plenorik garrantzitsuenetakoa, non aurrekontua erabaki behar zen. Erabateko adostasuna izan zen, bake-bakean, gai zerrendan zeuden puntuak bertan zeu-

den zortzi udal ordezkari baiezko bo-
toa emanez aurrera atera baitzituzten
2018ko E.A.M.ko aurrekontua eta egin
beharreko lanak.

Behin goi mailako ingeniari agrono-
mo batek argitu zidan, familian bi badi-
tudanez, fitoan, zooan eta abar adituak,
ekologista izateko lehendabizi baserrita-
rra izan behar dela, naturarekin harre-
manetan zuzenean, lurra, landarea, ani-
malia eta paisaia zainduz. Beraz, baserri-
tarrak garenez, kalitatezko bertako
produktu naturalak kontsumitzaileari
eskainiz, ez dugu inoiz gure arteko ha-
remena zalantzan jartzen, are gehiago
esango nuke E.A.M.ko hiru herri urba-
noenak, Beasain, Ordizia eta Lazkao Eni-
rio-Aralarren natura eta abeltzaintza
bultzatu dituen proiektuarekin bat egin
dute, eta guk baserritarrok baita. Natura
eta abeltzaintza bultzatzea aipatzea, 6
hektarea pista bihurtu eta ganadu gain-
karga ez, baizik zentzuzko proiektu bat
dago E.A.M-ko 15 herritako 10-ek aldeko
bozka emanda eta aurkakorik gabe. Ez
da pista proiektua, baizik Kudeaketa Pla-
na eta hau jarraituz helburua da 2.500
hektarea herriko parke gunek modura
txukun eta garbi zaintzeaz gain artzain-
tzari lan baldintzak hobetzea. Baserrita-
rrek badakigu nor den bide lagun eta nor
oztopo, beraz gure izena, izana eta gare-
na ez erabili okerreko norabiderantz, eta
gutxiago elkarren aurkari, inor ezagu-
tzen baduk jarri bere izen-abizenak eta
nongoa den, beraz, gezurretan ez ibili
mesedez. Bukatzeko, nire babesik han-
diena E.A.M. osatzen duten udalerriek,
Gipuzkoako Aldundiari eta noski besar-
kada bat herritar guztiei. Animoak Ara-
larko Baserritar Elkarteari eta goraipatu
baserritarrak, beraiek egiten duten lana-
ri esker, paisaia, natura, jakiak eta abar
luze bat ditugulako.

Aralarko Baserritarrak Elkarteko kide bat



Zure iragarkia argitaratzeko:
661 67 88 18
publi@ataria.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



Txiribituen 20. urteurreneko ekitaldietako bat, Ibarako plazan. I. TERRADILLOS

Txiribituzaleen topaketa

Ibarako Txiribitu aisialdi taldearen eguna ospatuko dute bihar, plazan, 25. urteurrenaren harira

Rebeka Calvo

Ibarako Txiribitu aisialdi taldeak bere eguna ospatuko du bihar. Plazan egingo dituzte ekitaldi guztiak eta belaunaldien arteko harremana sustatzeko egiten duten lanaren erakusle izango da, izan ere, bertan bilduko dira 25 urte hauetan Txiribitutik pasa diren hainbat begirale eta gazte.

Eguna haurrentzako puzgarriekin hasiko dute eta eguerdian, pintxo lehiaketa egingo dute. «Lehiaketan haur zein helduek hartu dezakete par-

te eta parte hartzeko modua ere irekia da; banaka, binaka edo taldeka egin daiteke», esan du duela sei urtetik begirale den Izaskun Urrestarazuk. Zubiaurre tabernan eman behar da ize-na. Txiribituk sua jarriko du eta parte hartzaileek nahi adina produktu eman ahalko dituzte.

Bazkaria ere egingo dute, plazan bertan, eta eguna borobiltzeko ekitaldia eta Errukirik Gabe taldearen kon-

EGITARAUA

APIRILAK 14, LARUNBATA

10:00. Puzgarriak, plazan.

12:00. Pintxo lehiaketa.

14:30. Bazkaria.

Ondoren. Ekitaldia eta Errukirik Gabe musika taldearen kontzertua.

tzertua izango dituzte. Hori bai, begiraleek festa luzatuko dute eta begirale ohiekin batera afaria ere egingo dute. Urrestarazuk esan duenez 40 bat elkartuko dira.

Asko dira 25 urte hauetan Txiribitutik pasa diren ibartarrak eta urteurren borobilarekin batera elkartu eta zer-bait egiteko gogotik atera da biharko eguna. «20 bat begirale gara eta 100 bat gazte. LH 5etik DBH 4ra bitarteko gazteek hartzen dute parte eta urtean zehar hainbat ekitaldi egiten ditugu. Larunbatetan taldeka banatuta biltzen gara eta urtean bi merienda ere egiten ditugu adin guztietako gazteak elkartuta. Ekainean ere elkartzen gara eta irteera bat egiten dugu, baina aurturteurreneko Txiribitu Eguna dela eta, ez dugu egingo», esan du.

Udalekuak ere egiten dituzte, 22 urte dira egiten dituztela. Aurtur uz-tailak 31tik abuztuak 11ra egingo dituzte eta Agurainera joango dira. «Gutxi gorabehera 80 bat gazte hartzen dute parte eta oso ondo pasatzen dugu, bul-tzatu nahi ditugun balore horiek sus-tatzeko oso baliagarriak dira udale-kuak», azaldu du begiraleak.

«Helburuak natura, euskara eta be-launaldien arteko harremanak susta-tzea dira, baita ibartar izatearen senti-mendu hori ere. Gazte asko biltzen gara eta oso harreman ona dugu. Txi-kienek eskertzen dituzte, batez ere, egiten ditugun ekintzak», esan du. «Niri pertsonalki asko eman dit Txiri-bituk. Gizarte hezitzailea naiz eta tal-deari esker gazteekin dudun harre-man horrek asko eman dit», gaineratu du Urrestarazuk.

Hilberriak eta urteurrenak



Belen Damian Santidrian

(Manu Urkiolaren alarguna)



*Une goxo ugari igaro ditugu
baino atzoko kantuak
malko bihurtu zaizkigu
gure lorerik ederrena
apirilak eraman bait digu.*

Zure lagunak

Mila, Arantxa, Iosune, M^a Jose, Maite, Lourdes

BEASAINEN, 2018ko apirilaren 13an



Belen Damian Santidrian

(Manu Urkiolaren alarguna)



*Ematen pasa den bizitza
ematen bizi izan haiz.
eta azkenik,
ematen ere hil haiz.
Laister arte*

Errifa taldea

Leandro, Jose Antonio, Ion, Mikelan, Iosune, Arantxa, Mila, M^a Jose

BEASAINEN, 2018ko apirilaren 13an

Slow Art Day egingo dute Ur Mara museoan, bihar

Artea ikusi eta gozatzeko
abiadura murriztu
beharrak ohartarazi nahi
du Alkizako museoak

Erredakzioa

Mundu osoko 94 lekuk bat egingo dute artea ikusteko abiadura murrizteko eta gehiago gozatzeko Slow Art Day ekimenarekin. Bihar izango da ekimena 12:00etan hasita eta sarrera doan izango da.

Artisten presentzia eta iritziarekin ikusi ahal izango dira ondorengo lanak: Myriam Gesalagaren *Lur mara* serigrafia, Irantzu Lekueren eskultura kontzeptuala, Mari Jose Recalderen *La madre 2005* eta Koldobika Jauregik berak *Formas en crecimiento* 1994an egindako bideoa erakutsiko du, 1994an Donostiako Intxaurrenondon jarritako harrizko eskulturari buruzkoa. Gainera, Ur Mara museoara gerturatzeko direnek harginek erabiltzen zituzten tresnak ikusi ahal izango dituzte bertatik bertara.

Bazkaria

Arte ekintzaren ondoren bazkaria izango da, Community Food delakoa. Helduek 10 euro ordaindu beharko dute eta hamar urte bitarteko haurrek 3 euro. Barazkijaleentzako menua ere egongo da. Parte hartu nahi dutenek 609 46 59 42 (Koldobika Jauregi) telefonora hots egin beharko dute.

Erakusketan parte hartzea librea izango da, baina puntualtasuna eskatzen diete gerturatzen direnei.



Gazteart ekimena, Ur Maran. J. MIRANDA

Kirolari emandako egunak izango dituzte

Iruran Kirol Astea antolatu dute beste behin; bihar hasiko da eta hilaren 22an egingo duten krosarekin amaituko da

Erredakzioa

Bihar hasiko da Iruran, Kirol Astea. Gaztelekuko gazteei zuzendutako frontenis txapelketarekin irekiko

EGITARAUA

APIRILAK 14, LARUNBATA

16:00. Frontoian frontenis txapelketa egingo dute, Gaztelekukoentzat.

APIRILAK 15, IGANDEA

11:30. Katategi industriagunean gazte mailako patin lasterketa egingo dute. Gipuzkoako txapelketa da.

Ondoren. Patin lasterketa herrikoia egingo dute sei urtetik gorakoentzat eta jarraian, patin lasterketa herrikoia izango da helduentzat.

16:00. Xake partidak, trinketea.

APIRILAK 16, ASTELEHENA

17:00. Haurrentzako herri jokoak, plazan, erretiratuek gidatuta.

Ondoren. Merienda, parte hartzaileentzat.

APIRILAK 18, ASTEAZKENA

18:30. Plazako eskolan *Hirutik bat* Peruko mendietako espedizioaren inguruko ikus entzunekoa.

APIRILAK 19, OSTEGUNA

17:00. Nagusien ibilaldia, plazatik.

APIRILAK 20, OSTIRALA

17:00. Frontoian Kirol Saltsa LH 3 eta LH 6 arteko ikasleentzat.

APIRILAK 21, LARUNBATA

11:00. Trinketea Gravni Txapelketako partida eskuz binaka: Gipuzkoa Vs Errioxa.

dute egitasmoa. Hilaren 22ra bitarte hainbat jarduera izango dituzte, tartean hilaren 20an egingo duten Kirol Saltsa. LH 3 eta 6 bitarteko gazteei begirako ekitaldia da eta izena apirilaren 16a baino lehen eman behar da kultura bulegoan edota ikastolan. Azken ekitaldia apirilaren 22ko Kros Herrikoia izango da. Zazpigarren aldiz egingo dute.

Ondoren. Nesken lagunarteko gomazko paleta partida: Amaia Irazustabarrena eta Leire Galdos Vs Miren Goikoetxea eta Ariane Arrieta.

APIRILAK 22, IGANDEA

11:00. Plazan bailarako VII. Kros Herrikoia bi urtetik 14 urtera bitarteko haur eta nerabeentzat. Heldu eta beteteranoak 12:00etan aterako dira.



Iazko krosaren irudi bat. I. SAIZAR

Gure Esku Dagoren giza katerako izen ematea

Ibarra. Ibarako Gure Esku Dagok ekainaren 10ean egin asmo duten giza katean parte hartzeko izen ematea ireki du. Gaur 19:00etatik aurrera jarriko dute mahaia Danon Txokoa tabernaren inguruan eta bihar, hilak 14, goiza emango dute plazan. Izena ematean 5 euro ordaindu behar dira eta zapi bat emango dute.

Bizikletak konpontzen ikasteko aukera

Tolosa. Bizikleten oinarrizko konponketak ikasteko aukera emango dute hainbat herritarrek, bihar, larunbata, 15:00etatik 18:00etara. Ereiteren lokalean egongo dira, San Esteban auzoko 20. zenbakian, 28 Kalanaren ondoan. Ikastaroa doakoa dela esan dute antolatzaileek.



«AZKEN URTE ETA ERDIAN OSO GUSTURA NABIL»

ERIK JAKA
PILOTARIA

Mendizabal III.a 6 tantorekin utzi zuen kanporaketa aurreko partidari lizartzarrak. Final-hamaseirenetan Lasoren aurka jokatu du, bihar, 17:00etan, Iruñeko Labrit pilotalekuan

Asier Imaz

Iribarria eta Ezkurdiaren multzoa tokatu zaio Erik Jakari (Lizartza, 1994). «Urrutira» begiratu aurretik, ordea, Unai Lasori irabazi beharko dio.

Zer moduz joan da (atzo) pilota aukeraketa?

Oso gustura. Ni ez nago ohituta horrenbeste pilota onen artean aukeraketa egitera, beraz, nire aldetik ez da inongo aitzakiarik.

Kanporaketa aurrekoa irabazita sartu zara. Txapelketan egotearekin gustura, ezta?

Urtean zehar nik aukera gutxi izaten ditut horrelakoak jokatzeko, eta aprobetxatzen jakin dut. Nire ustez, udaran Ardoaren Desafioan ondo jokatu

nuelako eduki dut aukera hau. Txapelketan egotea sari bat da, eta ea partidaren bat edo beste irabazteko aukera dudana.

Mendizabal III.aren aurka txisparekin ibili zinen.

Ondo sentitzen naiz. Ez orain bakarrik, azken urte eta erdian oso gustura nabil nire mailarekin eta bilakaerarekin. Buruz burukoan, ordea, ez dago huts egiterik. Partida batean dena jokatzen duzu, eta egun txarrak denok izaten ditugu. Zumaian egun ona izan nuen, eta egin beharrekoak oso ondo egin nituen. Nire asmoa larunbatera begira hori errepikatzea da. Gauzak horrela eginez gero, irabazteko aukeraren bat izango dudala uste dut.



Unai Laso izango da aurkaria. Egunen batean zeresana emango duen pilotaria izango dela dirudi.

Irujoren hainbat gauza gogoratzen dizkit niri. Izugarritzko ezaugarriak ditu banakakorako, eta oso partida gogorra izango delakoan nago. Nire armak ondo-ondo erabiltzen baldin baditut, ordea, aukerak izango ditudala espero dut.

Tokatu zaizun multzoari asko begiratu al diozu?

Ez daukat urrutira begira egoterik, ez nik eta ez inork. Bakoitzak berean zentratu beharra dauka. Argi dagoena da larunbatean irabazten duenak Ezkurdiaren aurka oso zaila izango duela, eta zer esanik ez Iribarriaren aurka.

Herri Kiroletatik...

Apustuei errespetua

Ez da lehen aldia esaten dudana, eta ez dut uste azkena izango denik, zoritxarrez: apustuei errespetua!



JOXE ANJEL SARASOLA

Jendea edozein modutara hitz egiten entzuten dudanean, horrenbeste sarrera beraz horrenbeste diru esanaz, izugarritzko mina hartzen dut. Hor atzean dagoen sufrimendu eta

bueltan dabilen jende guztia ez delako kontuan hartzen.

Apustuak ez dira egun bateko kontuak. Ez eta azken hiru hilabeteak ere. Apustua itxi aurretik, probak egiten dira, eta azken hiru hilabeteak puntuan jartzeko izaten dira. Kamioika egur, dirutza, medikuak, presatzaileak, kotxean orduak eta orduak, erremintetan joaten den gastu guztia... Aizkora mundua gastua da, eta ez dago edozeinen eskura. Horrexegatik, dabilenak ere ez du nahi adina entrenatzen. Saio bakoitzeko bota 150 euro.

Gehiketa errazak egiten ditu jendeak sarri, egun jakin bateko ikusle kopuruari begiratuta. Hori ere aztertzea da. Zein apustu egun aukeratzen da? 'Arria V.a'-k Azpeitian marka jarri

zuenekoa? Etxeberrak eta jokatu zutenekoa? Zein aukeratuko dugu? Plazan 300 lagun elkartzen ez direnako horien atzean dagoenaz zer esan.

Euskaldunok, herri kirolei beste inork baino errespetu gehiago zor diegu. Eta horren barruan, apustuak sakratuak dira. Herri kirolariek tarteka hanka sartzeak izan dituzte, eta berriro ere ziur izango dituztela. Azkena, errespetu handirik gabe plazara joan zireneko hura izan zen. Batek bere damua azaldu zuen, besteak, berriz, oso bestelako azalpenak eman zituen. Ez noa izenak esatera, min ematen didalako eta oso itsusia izan zelako. Baina lana ondo egin duenari errespetua zor zaiola uste dut, berak ere izugarritzko errespetua izan duelako apustu hori prestatzerako garaian.



OSTIRALA APIRILAK 13

ALBIZTUR

MENDIKUTE PILOTALEKUA

19:00. Esku pilota. Tolosa Aurrerako jubenil eta nagusien lau partida, lau t'erdian.

ALEGIA

ELORRI PILOTALEKUA

18:30. Esku pilota. Intxurreko infantil eta nagusien lau partida. Lau t'erdian.

AMASA-VILLABONA

BEARZANA FRONTOIA

18:45. Esku pilota. Behar Zanako kadete eta nagusien lau partida.

IKAZTEGIETA

18:30. Esku pilota. Intxurreko kadete eta nagusien lau partida, lau t'erdian.

LIZARTZA

FRONTOIA

19:00. Esku pilota. Tolosa Aurrerako jubenil eta kadeteen hiru partida, lau t'erdian.

TOLOSA

BEOTIBAR PILOTALEKUA

19:40. Esku pilota. Tolosa Aurrerako alebin eta infantilen hiru partida.

LARUNBATA APIRILAK 14

ADUNA

16:00. Esku pilota. Txulobiko alebinen partida.

ALEGIA

ELORRI FUTBOL ZELAIA

10:00. Futbola. Aralar Intxurre A vs. Añorga. Infantil mutilak, Lehen Maila.

12:00. Futbola. Aralar Intxurre B vs. Ordizia. Infantil mutilak, Lehen Maila.

16:00. Futbola. Intxurre vs. Landetxa. Jubenil mutilak, Lehen Maila.

ALKIZA

16:00. Esku pilota. Tolosa Aurrerako infantil eta kadeteen hiru partida. Lau t'erdian.

ALTZO

ALTZO MUINO PILOTALEKUA

15:30. Esku pilota. Intxurreko infantil eta alebinen hiru partida.

AMEZKETA

LARRUNARRI PILOTALEKUA

16:00. Esku pilota. Zazpi Iturriko Zabala jubenilaren partida, lau t'erdian.

ANOETA

ALKARTASUNA FRONTOIA

16:00. Esku pilota. Kuku Elkarteko infantilen partida.

IKAZTEGIETA

GALTZALDE FRONTOIA

17:30. Esku pilota. Peña II eta Urretabizkala II.aren arteko Promozio Txapelketako partida. Aurrez, herriko pilota eskolako haurrak ariko dira pilotan. Ondoren, Mozo eta Artolak lau t'erdiko partida jokatuiko dute afizionatuen mailan. Jaialdiko hirugarren partida izango da profesionalen artekoa.

TOLOSA

BEOTIBAR PILOTALEKUA

10:30. Esku pilota. Tolosa Aurrerako kadete eta nagusien lau partida, lau t'erdian.

16:00. Esku pilota. Gipuzkoako Berezkoren Txapelketa. Infantil mailako lau partida. Tartean, Tolosa Aurrerako Iztueta eta Amundarain izango dira.

ZIZURKIL

PEDRO MARI OTAÑO PLAZA

18:00. Zizurkilgo III. Txakurkrosa. 6 kilometro inguruko ibilbidea.

IGANDEA APIRILAK 15

ALEGIA

ELORRI FUTBOL ZELAIA

16:00. Futbola. Intxurre vs. Mutriku. Jubenil neskak, Lehen Maila.

AMEZKETA

LARRUNARRI FRONTOIA

12:00. Esku pilota. Zazpi Iturriko Odriozolaren partida lau t'erdian, nagusien mailakoa.

TOLOSA

BEOTIBAR FRONTOIA

10:00. Esku pilota. Tolosa Aurrerako jubenilen bost partida.

TALDE NAGUSIAK

SAMANIEGO ORIXE

Eskoriatza

Areto Futbola. Senior Neskak. Apirilak 13, ostirala, 22:00etan, Tolosako Uzturpe frontoian.

ANOETA FT

LAUBURUIBARRA

Areto futbola. Senior Neskak. Apirilak 14, larunbata, Anoetako Abraham Olano kiroldegian.

Aurrera Vitoria

LASKORAIN IKASTOLA

Areto futbola. Hirugarren Maila. Apirilak 14, larunbata, 17:30ean Gasteizko Olanarbe kiroldegian.

Gure Auzune

TOLOSA CF ESKUBALOIA

Eskubaloia. Lehen Maila Nazionala. Larunbata, 19:30ean, Gasteizen.

Barakaldo

TOLOSA CF

Futbola. Euskal Liga. Apirilak 14, larunbata, 17:00etan, Barakaldo.

TOLOSA CF

Ordizia

Futbola. Erregional Ohorezko Maila. Igandea, 16:30ean, Berazubín.

REDLINE MEKANIKA TAKE

Getxo

Saskibaloia. Larunbata, 18:30ean, Usabalen.



**BILLABONA
FUTBOL
KIROL ELKARTEA**

ARRATZAINGO FUTBOL ZELAIA

Larunbata, 14 • 10:00
Infantil Txiki maila
BILLABONA FKE - BETI ONA

Larunbata, 14 • 12:00
Kadete Ohorezko maila
BILLABONA FKE - AÑORGA

Larunbata, 14 • 16:30
Infantil 1. maila
BILLABONA FKE - BURUMENDI

Igandea, 15 • 16:30
Kadete 1. maila
BILLABONA FKE - TOLOSA



**Mondragon
Unibertsitatea**



GURE IKASLEEN AHOTAN



<<Gastronomia graduan, sukaldaritzaz gain, beste jakintzagai batzuk ere ikasten dituzu>>

Irati Berasaluze, Laskorain ikastolako ikasle ohia, Adunakoa da eta Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak gradua ikasten ari da Mondragon Unibertsitateko Gastronomia Zientzien Fakultatea-Basque Culinary Centerren.

Zergatik aukeratu zenuen Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak gradua? Eta zergatik Basque Culinary Center - Mondragon Unibertsitatean?

Betidanik ama ikusi izan dut etxean prestatzen eta beti gustatu izan zait sortzen duen giro egoki eta polita bere platerekin. Txikitatik berarekin kozinatzeiko aukera izan dut eta, gastronomia munduari buruz gehiago ikasi nahi nuen, gradu hau egitea erabaki nuen.

Basque Culinary Centerren ikastearen lehen arrazoia da, etxetik gertu dudala eta bigarrena, janaria prestatzeaz aparte beste hainbat gauza ikasteko aukera dago, beste gastronomiako, goi mailako zikloek edo graduek eskaintzen ez dutena.

Nola balioetsiko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Egia esan, espero nuena baino askoz gusturago nago. Gradu honetan ezer jakin gabe sartu naiz eta hasieran beldur pixka bat nuen baina, egia esan, bertako jendea, taldea, irakasleak... denak, laguntzeko prest daude eta hori asko eskertzen da.

Pentsatzen nuena baino askoz gehiago ikasten ari naiz eta, egia esan, oso gustura.

Nola definituko zenuke Basque Culinary Centerren jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Egia esan, pixka bat arraroa da. Hau da, batxilergotik etorri berri naiz eta ikasteko metodologia Batxilergoan eta BCC-an oso ezberdinak dira; baina, hala ere, oso egoki eta interesgarria

iruditzen zait, betiko metodologia hautsi eta praktikotasunari aukera ematen zaiolako.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?

Unibertsitatetik gehien gustatzen zaidana ate asko zabaltzen dituela da. Nik uste nuen kozinatzen bakarrik ikasiko nuela eta, bat-batean, ohartu naiz gastronomia ez dela hori bakarrik. Gainera, gradu honetan, talde lanean eta adiskidetasunean lan egiten ikasi dut, beste leku askotan ikasi ez dudana.

Egia esan, oso denbora gutxi daramat hemen ikasten eta oraingoz ez nuke ezer aldatuko. Hala ere, badago pena ematen didan zerbait, hizkuntza. Ikasle asko munduko herrialde ezberdinetatik etortzen direnez eta hauek euskara ikasten jartzea erraza ez denez, eskolak gaztelaniaz ematen dira. Alde batetik, inguru multikultural batean ikastea oso aberasgarria da eta, bestetik, nire ama hizkuntza izanik eta unibertsitatea Donostian egonda, tristura ematen dit euskaraz ez ikasteak.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Egia esan, oraingoz ez dakit zer egin edo izan nahi dudana, baina bidaiatzea eta ahal dudan guztia ikasten gustatuko litzaidake. Bestalde, aurreten sortutako proiektuarekin jarraitu nahiko nuke. HESTIA Project izena du eta gure asmoa da, errekurtsorik gabekoei otordu duinak eskaintzea. Horretarako, gaur egun dagoen beste arazo bati eutsi nahi diogu: multinazional handiek ezarritako edertasun estandarra ez betetzeagatik egunero botatzen diren elikagaiak aprobetxatzea. Estetikoki perfektuak ez diren baina nutrizio aldetik guztiz baliagarriak direnak erabiliz. Gure proiektua aurrera eramateko talde lan bat antolatu dugu izen handiko jatetxeetan lan egiten duten sukaldariek, hauek baitira lehen aipatutako elikagai zatarrak erabiliz mirariak egin ditzaketenak, polit ez diren baina guztiz erabilgarriak direnekin artelanak sortuz.



Orri zurian

Eskolan, udaberria marrazteko eskatu diete bost urteko haurrei. Haiek korrika eta muturka margoen kutxara joan dira eta segituan hasi dira lanean: loreak, tximeletak, eguzkia eta zelaia marraztu dituzte.

Kontuak kontu, ordu erdiren bueltan bukatu dute denek, eta harro-harro gelditu dira margolanei begira, inoren marrazkiaren inbidiarik gabe; Picasso bera ere ez zen gusturago geldituko *Gernika* bukatu zuenean. Anderenok baieztatu die baietz, mundialak direla haien marrazkiak eta etxekoei erakustea ere merezi duela.

Esan eta egin: etxeko guztiei erakutsi diete marrazkia. Gurasoek «artista zara, gero!» esan diete, aitona-amonek gozoki gehiago eman dizkiete sari gisa, eta izeba-osabenean ere ez da zorionik falta izan.

Horrelako harrrera jaso izanak ez die haurrei zalantzarik uzten: baietz, zinez artistak direla.

Horregatik, gerora bide beretik joko dute beste gauza batzuetarako ere; alegia, zerbait egingo dute, zerbait hori us-tez haien gaitetik daudenei

erakutsiko diete, eta epaiaren zain geldituko dira: kale edo bale. Kale denean, hurrengorako zer aldatu pentsatuko dute, «k» hori ahal bezain pronto «b» batez ordezkatzeko.

Bale bada, erraza, erosotasun horri gogor eutsi eta aurrera. Urteek aurrera egin ahala, gero eta zailagoa izango zaie baleak lortzea; kaleak, aldiz, erdi-prezioan eta nonahi.

Eta horrela bizi da makina bat, bere burua besteen begietatik epaitzen eta norberaren balioa besteen baleen arabera neurtzen; esku-zartan baten truke direnak eta ez direnak egiten, inoiz jasotako gozoki haren nostalgian. Paper zuriaren aurrean kikildu egiten gara; ez gara ausartzen arkatzez trazurik egitera, are gutxiago errotulagailuz, horrek

ez omen du eta atzera bueltarik. Baina zer demontre, permanente beltzez orri erdian egindako marra hori gustuko badugu, zergatik utzi orria zurian?

Orri zurian, marraz dezala norberak gehien maite duen hori.



AINHOA MENDILUZE

ATARIA IRRATIA 107.6 FM





Tolosaldeko 2018–2025 Plan estrategikoaren aurkezpeneko une bat. I.G.L.

Gure erronka eta konpromisoak

12

Partekatutako Balio, Erronka eta Konpromisoen Gutuna gizarteratu zuten pasa hilean eskualdeko eragile ezberdinek

Tolosaldea Garatzenek, eskualdeko eragileen partehartzearekin, Tolosaldeko balio, erronka eta konpromisoen gutuna idatzi du eta eskualdeko eta lurralde mailako ordezkariak babesarekin gizarteratu zuen pasa den hilean datozen urteetan eskualdea nolakoa izatea nahi dugun marrazten duen eskutitz hori. Bertan, honako konpromisoak hartzen dira:

Tolosaldea Inklusibo eta Solidarioa nahi dugu, eta herri ireki, ikasi eta tolerante bat eraikitzeko konpromisoa hartzen dugu. Guztiok ongizaterako eta kalitatezko lan egonkor bat edukitzeko eskubidea bermatuta izan dezagun borrokatuko dugu. Guztion artean, berdinen arteko Tolosaldea horretarantz egingo dugu bidea, inongo genero, jatorri edo baldintza soziala-erengatik bereizketarik gabe.

Tolosaldea Aktibo eta Kolaboratiboa nahi dugu. Elkarlanerako eta

lankidetzarako balio berriak zabalduko ditugu. Aurrerapausoak eman- go ditugu, modu kolektiboan eta partekatuan, enpresa, gizarte eta kultura arloan proiektu berriak eraikitze-ko.

Tolosaldea irekia nahi dugu. Gure eskualdeko pertsona guztiek, eremu, baserri eta enpresa guztiek, edozein lekutan kokatuta daudela ere, Interneterako sarbidea izateko eskubidea dute eta eskubide hori bermatuko dugu.

Tolosaldea Euskalduna nahi dugu. Komunitate erabat euskalduna eraiki nahi dugu, eta horretarako, euskararekiko gure konpromisoa zabalduko dugu gure eskualdeko bizitza ekonomiko eta sozialeko esfera guztietan.

Tolosaldea Naturala nahi dugu eta eskualdeko herrigune eta industriagune guztien bihurtzera eraman nahi dugu natura: gure errepide-sarea naturalizatuz, artifizialeduta dau- den inguruneak lehengoratzuz, ibai- arroak berreskuratuz eta bertako bio- dibertsitatea leheneratuz.

Oinezko Tolosaldea nahi dugu. Pixkanaka ibilgailu pribatua erabiltze- ari utzi nahi diogu, garraio kolektibo eraginkor baten mesedetan. Ahal dela oinez eta bizikletaz egingo ditugu ba- tetik besterako joan-etorriak, eta ho- rretarako prestatu eta egokituko ditu- gu gure kale eta espazio publikoak.

Zero Hondakin Tolosaldea nahi dugu, eta konpromisoa hartzen dugu eko-erantzukizunean hezteko eta gure hirietako eta industriako honda- kinak gaika biltzea erraztuko duten baliabide teknikoak jartzeko.

Energia-kontsumo la Zeroko To- losaldea osatzen dugu. Gure eraikin publiko, gure auzo, saltoki eta fabrikak pixkanaka energia-eraginkortasun go- reneko eta energia berriztagarriak sor- tze-ko programetara bildu nahi ditugu, ahal den kasu guztietan.

Tolosaldea Eko-enpresariala nahi dugu. Enpresa-ehun berritzailea, kolaboratiboa eta pertsonetikiko ardu- ratsua nahi dugu. Ingurumenarekin beste era bateko harremanean oinarri- tuko den kultur bat ezartzera anima- tuko ditugu gure enpresak eta salto- kiak.

Tolosaldea Ekintzailea nahi dugu. Aintzat hartzen ditugu ekintzai- leak, eta gure eskualdean enpresa, kul- tura eta gizarte arloko ekimenak sor- tzea nahi dugu, gure etorkizun parte- katua gorpuzteko.

4.0 Tolosaldea nahi dugu, eta gogo- onez egingo dugu lan 4.0 industria ga- ratzeko, gure enpresen talentua, sor- mena eta berrikuntza oinarrian direla.

Landa-eremuko Tolosaldea nahi dugu. Gure landa-eremuan, nekazari- tza, abeltzaintza eta basogintza jar- dueren profesionalizazioa eta moder- nizazioa bultzatzen dugu. Baserria leku erakargarri bihurtuko dugu eta baserriko bizimodua lehiakor, gure landa-eremuko biztanleen piramidea gatzetzeko, nekazaritza-ustategiak feminizatze-ko eta guztion artean lu- rraldearen kudeaketa iraunkorrari eusteko.

Automatizazioa humanizatzeaz



Zure burua biktimatzat hartu eta atea kanpoaldetik eta kolpe bizian ixtea beste irtenbiderik ez duzu ikusi, bazen garaia egia esan.

Enegarren aldiz telefonía enpresa batetik deitu dizute batere ongi ez da-torkizun momentuan. Ez da harritzekoa, konpainiaz aldatzen hasi zarenetik ia orduero deitzen baitizute eskaintza berri eta erakargarriagoak eginez. Engainatua sentitzen zara, hainbeste urteko fideltasunak ez baitu oparirik izan bertan egon nahi izan duzun bitartean. Orain gogoratu dira zutaz, irteterakoan danbatekoa eman duzunean. Zure haserrea telefonoaren bestaldeko operadorearekin ordaintzeko tentaldian erortzeko puntuan egon zara, baina oraingoan hotz mantentzea lortu duzu.



ANDER LORENTE
IRAKASLEA ETA
INGENIARIA

Honelako aldartea mantentzea zaila zaigun arren, aipatu langile horiek defendatzea dagokit oraingoan. Erabiltzaileok konpainien arteko migrazio politika gogaikarriaren biktima zuzenak garen moduan, deitu digun horrek ere ez du bere gogoz lan egiten

kasu hauetan eta jakin ere badaki bere behin eta berriro ekite horrek ez duela amaiera onik izango bere konpainiarentzat. Erlazio komertzial hau ere, beste prozesu asko eta asko bezala automatizatu izan da, eta aurrez programatutako sistema baten ondorioa da. Automatizazioak normalean pertsonen lana erraztea dute helburu, baina kasu batzuetan ez dute erabakitze ahalmena uzten

eta hau kalterako ere gerta dakioko sistemari berari.

Kontuz ibiltzea dagokigu supermerkatu batzuetan ere. Ordaintzerako ga-

raian zein ilaretan jarri jakiteko sistema bat inplementatu da denda batzuetan, zeinak kaxa zenbaki bat esleituko digun. Presagatik, maltzurkeriagatik edota nahasteagatik izaten dira bi pertsona jarraian pasatzen diren kaxak, edota behar ez den kaxa zenbakian norbait ilaran jarri denekoak. Norbaitek pixka bat itxaron edo dagokion ilaran jarritz gero erraz ebazteko moduko gatazka litzateke mundu zibilizatu batean, baina zenbakiak banatzen dituen sistema horren blokeoa sor genezake benetan. Askotan programa hauek ez daude ezustekoei aurre egiteko prestatuak eta ematen duten laguntza baino traba handiagoak sor ditzakete.

Beste adibide garbi bat dugu mugikorrean erabiltzen ditugun *online* mapena ere. Lantokira bidean dauden auto ilarak ekidin nahian, gidari askok aplikazio hauetara jotzen dute, azken berrien arabera bide azkarrena hartzeko. Sortzen ari den efektua aldiz, nahi izan denaren aurkakoa da sarritan. Trafiko handia jasateko prest ez dauden bide eskas eta estuagoak gainezka egotea lortzen da momentu puntualetan, hasieran zegoena baina oraindik ere nahaste handiagoak sortuz gidari nahiz autoritateentzat.

Garapenak erraztasun handiak ematen dizkigun arren, pertsonaren adimenaren aldeko aldarria egitea beharrezkoa dela uste dut, gaurko programatzaileak bikainak izan arren, ezin baitute kasuistika eta ezusteko guztiak kontutan hartzeko algoritmorik sortu oraindik.



Eskualdeko Lanbide Heziketari so

Asko egin du gora, kalitatean nahiz kuantitatean, azken urteetan Lanbide Heziketak, eta horren isla da Tolosaldean dagoen eskaintza; bost zentrotan, 25 ziklo ikasteko aukera dago, eta mila ikasle inguru ari dira egun formatzen.

Iñigo Terradillos

Urrun geratu da Lanbide Heziketa bigarren mailako ikasketatzat hartu izan den garaia. Urrun, era berean, Lanbide Heziketa aukeratzen zuten ikasleen kopurua. 20 urte atzera egiten badugu, gazteen laurdenak hautatzen zuen bide hori, eta gaur egun, %45 ingurukoa da kopurua. Tolosaldeari dagokionean, bertan diren

bost zentroetan, 25 ziklo ikas daitezke eta 1.000 ikasle inguru daude une honetan.

Gorakada horretan zerikusi zuzena izan dezake lan munduan murgiltzeko ematen duen erraztasun handiagok, eskariaren zati handi batek Lanbide Heziketako ikasketekin lotura baitu. Bestetik, nabarmentzekoa da, baita ere, kalitatean nahiz eskaintzen diren zikloetan asko egin duela gora aukera honek.

Horren erakusle garbietakoa da Tolosaldea. Bost zentro daude eskualde-

an, Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutua, Inmakulada Lanbide Heziketa Ikastola, Fraisoro eskola, Don Bosco Lanbide Heziketa Institutua eta Peñascal kooperatiba. Sektore eta maila desberdineko formazioa eskaintzen dute, eta ikasketa guztiak euskaraz egin daitezke, aukera hori ematen duen eskualde bakarra izanik. Hainbat zentrotako ikasle ohiekin nahiz enpresa eta erakundeetako ordezkariekin bildu da TOLOSALDEKO ATARIA eskualdeko Lanbide Heziketaren ezauzgarrien inguruan solasteko.



UNAI ANDUEZA TOLOSALDEA GARATZENeko TEKNIKARIA, UXUE ODRIÓZOLA LANBIDE HEZIKETAKO IKASLE OHIA ETA AITOR ARIZNABARRETA ONICROM ENPRESAKO GERENTEA

«ESKAINZA ZABALA ETA ANITZA DU ESKUALDEAK»

Unai Andueza Tolosaldea Garatzeneko enpresa saileko teknikariak azaldu duenez, hiru jarduera ekonomikorekin egiten dute lan eskualdeko garapen agentzian. Oro har, Tolosaldeko Lanbide Heziketaren eskaintza «zabala eta anitza» dela uste du. Sektoreka, lehen sektorean profesionalizazio maila handitzea beharrezkoa dela dio, eta alde horretatik, «lanbide heziketa eskaintza oso garrantzitsua da. Eta, zer esanik ez, hirurgarren sektorean, zaintzan, osasungintzan, bai baitakigu hor eskaerak gero eta handiagoak izango direla». Bigarren sektorea jorratzen dutela baitatik bat dio Anduezak, eta industriari lanbide heziketak ematen dion erantzuna «garrantzitsua» dela. «Etorkizunean ere garrantzitsua izango da, eta erronka batzuk baditu etorkizunari begira, izan ere, esaterako, populazioa murrizten ari da». Tolosaldean, metal mekanika sektorearekin lotutako jar-

duera nagusitzen dela zehaztu du, eta baita papergintzaren historiaren ondorio bezala geratu diren jarduera batzuk. «Industria 4.0-k ekartzen dituen erronkak oso garrantzitsuak izango dira, lehiakorrak izateko mundu mailan, eta horretan Lanbide Heziketak pisu garrantzitsua izango du», gaineratu du.

Aitor Ariznabarreta Ariznabarreta SA Onicrom enpresako kudeatzailea da, eta bere ustez, «oso positiboa» da eskualdeko lanbide heziketa eskaintza. Hori bai, oraindik ere, jende gehienak unibertsitate ikasketak egin nahi izaten dituela dio, eta «bide horretatik

«Erronkak baditu Lanbide Heziketak etorkizunera begira, dagoeneko jendearen beharra nabaritzen ari baita»

UNAI ANDUEZA
TOLOSALDEA GARATZENeko TEKNIKARIA

lana topatzea zailagoa izaten da». As-teasuko bere enpresan langileak Lanbide Heziketatik hartzeko hautua egin dute, eta «oso gustura» daude, eta «baita langileak ere». Praktiketarako hartu ohi dute jendea, eta horrela nola lan egiten duten ikusteko aukera izaten dute. Horretarako, ikasketak eta lan egitea bateratzen diren Dual prestakuntza baliatzen dute. Ikasteko modu honekin, ikasleak lehen urtea ikastetxean egiten du, eta bigarrenetan, lan kontratu baten bitartez, modulu batzuk enpresa batean garatzen ditu, eta besteak ikastetxean. «Dualak guk behar dugun lanetarako jendea prestatzeko aukera ematen digu; esaterako, duela bi urte kontrolerako pertsona bat behar genuen, eta bereziki lan horretarako prestatu zuten ikasle bat, eta, une honetan, beste pertsona bat daukagu bulegoan ekoizpena eramateko, horretarako prestatua izan dena».



«LANBIDE BAT IKASTEKO AUKERA EMATEN DIZU»

Ikasleek ere oso positibotzat dute ikasi eta aldi berean lanean aritze-ko aukera hori. Uxue Odriozola Fraiso-ro eskolako ikasle ohia da, eta Dual prestakuntza aukeratu zuen: «Eskolan ikasten ari zara, eta aldi berean, enpresa batean lanean kontratu batekin. Nik aukeratu nuen, lanbide bat ikaste-ko aukera ematen dizulako, mundu errealean murgiltzen zarelako». Izan ere, Odriozolak dioen moduan, eskolan «denetarik pixka bat» ikasi ohi da, baina, «prestakuntza honi esker, benetako lanbide batean hasten zara, lan esperientzia jasoz».

Garikoitz Eizmendi Tolosaldea LHiko ikasle ohia da, eta ikasten ari zen bitartean jarri zen lanean: «Ikasle-entzako aukera ona da enpresa munduan sartzeko, eta, era berean, ikaste-ko benetan lana nola den». Enpresarentzako ere «oso ona» dela dio, ikaslearen jarrera, lan egiteko gogoia eta nola funtzionatzen duen ikusten duelako.

Julen Legarra Don Boschoko ikasle ohiak norbere burua lanean ikusteari ematen dio garrantzia: «Praktiketan zure burua lanean ikusten duzun arte ez dakizu zer ezaugarri on eta txar dituzun, eta oso ondo dago horretaz jabetu eta hobetzen joateko».

Bestalde, enpresek langilea behar dutenean gehien begiratzen zaionari buruz galdetzean Aitor Ariznabarretak argi du «ahalik eta hobekien prestatuta egotea» dela. Dena den, hori ez da begiratzen den ezaugarri bakarra: «Gogoia edukitzea ere garrantzi handia ematen diogu. Prestatuta etortzea, jokaera eta gogoia da garrantzitsua. Gu erakusteko prest gaude, eta gogotsu

etorri gero ikasi egiten duzu», dio. Hala, Ariznabarretak izan duen esperientziatik, Tolosaldean «ondo prestatuta» dagoela jendea deritzo. «Ondo prestatua eta jatorra topatu dugu guk». Eta gehitzen du, «preparatuz ero lana badagoela».

Tolosaldea Garatzeneko teknikaria ere bat dator enpresariarekin, langileen jarrera nabarmentzerakoan: «Ikas- teko gogoia izatea, malgua izatea, taldean lan egiten jakitea... kontuan hartzen diren ezaugarriak dira. Ikastetxean, teoriarik eta praktikan gauza asko ikasi ditzakegu, baina badaude asko baloratzen diren beste zenbait ezaugarri ere». Tolosaldeko Lanbide Heziketak lan munduan dagoen eskaria kontuan hartuz eskaintzen duena «ondo» dagoela dio Anduezak, «osatua» dela, baina, horrekin batera, «oinarria jaso eta gero enpresen beharretara egokitu behar da, eta horretaz jakitun izan behar du, bai ikasleak eta baita enpresak berak ere».

«Lanbide bat ikasteko aukera ematen dizulako, mundu errealean murgiltzen zarelako aukeratu nuen nik»

UXUE ODRIOZOLA
LANBIDE HEZIKETAKO IKASLE OHIA



GARIKOITZ EIZMENDI ETA AITZOL URKIZA LANBIDE HEZIKETAKO IKASLE OHIAK

«MUTIL EDO NESKA BATEK PRESTAKUNTZA BERDINA BADU AUKERA BERDINAK EMAN BEHAR ZAIZKIO»

17

Eta, Lanbide Heziketan emakumeak eta gizonak parekidetasun egoeran al daude? Aitor Ariznabarretak azaltzen duenez, enpresa txikietan gerta daiteke ez egotea prestatuta emakumezkoak nahiz gizonezkoak leku berean lan egiteko: «Guk, une honetan, tailerrean lan egiten duten bi emakume ditugu, eta esperientzia oso ona izan da. Egia da, orain urte batzuk, nire aita zegoenean, mekanika enpresa batean emakumeak sartzeko aldaketa oso konplikatuak izan zela. Animateu egin ginen. Emakume bat egon zen praktiketan eta ikusi genuen oso jarrera ona zuela. Mekanikaren bideetik doazen emakumeek benetan gus-tatzen zaielako egiten dutela ikusi dut, eta hori enpresentzako oso ona da. Gure arazoa izan zen ez geundela prestatuta, emakumeak eta gizonak leku berean edukitzeko, aldagelak, komunak... Enpresa txikietan hori gertatu daiteke, baina, nik jendea animatuko nuke pausoa ematera».

Enpresentan pauso asko daude oraindik emateko, eta ikastetxeetan? Uxue Odriozolak zehazten duenez, 25

ikasletik lau neska ziren bere gelan. «Badirudi ziklo batzuk emakumeei zuzendutakoak direla eta beste batzuk, aldiz, gizonari zuzenduak, eta hori gertatzen da, esaterako, basogintzan, mutilentzako zerbait dela uste dela». Baina, ez soilik eskolan, lan munduan ere gauza bera ikusi eta bizitu du: «Nik bizitu izan dut nire arloko lanetan mutilak lehenago hartzen direla neska baino. Oraindik desberdintasun handiak egiten dira, eta hori hautsi behar dugun lehenak gu emakumeak gara, baina, enpresak ere bai, aukera berdina emanez. Mutil batek edo neska batek prestakuntza eta ezaugarri berdinak baditu aukera berdinak eman behar zaizkio».

Elena Begiristain Don Boscoko ikasle ohiari, ikasi dituen bi zikloetan bi

«Emakumeekin tailerrean izan dugun esperientzia oso ona izan da; nik pausoa ematera animatuko nuke»

AITOR ARIZNABARRETA
ONICROMENPRESAKO KUDEATZAILEA

egoera desberdin gertutik bizitzea egokitu zaio: «Nire lehen kasuan, laborategian neska bakarrik ginen. Emakumeak laborategian aritzeko txukunagoak garenaren ustea dago oraindik. Alderantziz, kimika industrialak ikastean soilik lau neska ginen klasean eta enpresentan oraindik ez dute ematen neska kontratatze pausoa, esaterako produktzioan. Bakarrik laborategian egon gaitezkeela dirudi. «Produktzioan egoteko ere ikasi dugu eta enpresek pauso hori eman behar dute».

Aitzol Urkiza Inmakulada ikastola-ko ikasle ohiak da, eta bere kasua alderantzizkoa dela esan daiteke, hau da, mutilak gutxiengoak diren eta tradizioz emakumeenak izan diren arloetan egotea egokitu zaio. Berak dioenez, rola apurtu behar dira: «Nire kasuan, nahiz eta kontratu bat egiterakoan bazterketarik ez jasan, bai begiratzeko dela gizonezkoak zer lanpostutan kokatu». Osasungintzan emakumeak gailentzen diren arren lanean hasteko ez duela inoiz arazorik izan zehaztu du.



ELENA BEGIRISTAIN ETA JULEN LEGARRA LANBIDE HEZIKETAKO IKASLE OHIAK

«PRESTAKUNTZA POLITA ETA INTERESGARRIA DA»

Formakuntza osoa dela, ate asko irekitzen dituela, praktika ugari dagoela edota lanerako sarbide ona duela nabarmentzen dute Lanbide Heziketatik igaro diren ikasleek. Uxue Odriozolak, esaterako, Fraisoro Eskolan ikasi zuen Gipuzkoan bertan baino ez dagoelako berak ikasitako basogintza modulua. «Niri gustatzen zaidana zen, eta horregatik joan nintzen bertara». Esperientzia oso ona izan zela gogoratzen du: «Asko ikasi dut bertan, bai teorian, bai eta praktikan ere, eta oso giro onean, gainera». Arlo ugari hartzen dituelako eta lan mundura oso bideratuta dagoelako gomendatzen du.

Aitzol Urkizak beste ezaugarria batu dio eskualdeko Lanbide Heziketari, hizkuntzarena: «Erradiodiagnosi irudiko teknikari ikasketak euskaraz egiteko aukera bakarra Inmakuladak Ikastolak eskaintzen duelako etorri nintzen Ondarrutik Tolosara, argi bainuen euskaraz ikasi nahi nuela». «Oso gustura» aritu da, eta lanerako sarbiderako ere zortea izan duela nabarmentzen du. «Ate ugari irekitzen dituelako» gomendatzen du Lanbide Heziketa egitea.

Garikoitz Eizmendik, berriz, zalan-tza izan zuen batxilergoa bukatu ostean, unibertsitate ikasketekin hasi ala ez, eta azkenean Lanbide Heziketaren bidetik jo zuen: «Tolosaldea Lanbide Heziketara ate irekien egun batean bisitan etorri ginen, zeuden zikloak ikusi nituen, eta argi geratu zitzaidan niri gustatzen zaizkidan atal guztiak nola-bait ukitzen dituela». Esperientzia «oso ona» izan zela dio, «asko» ikasi zuela, eta lana bilatzean laguntza «handia» izan zuela: «Heziketa zikloa bukatzerako lanean ari nintzen, gaur egun arte». Bere ustez, Lanbide Heziketa ikastearen abantaila handienetako bat da «formakuntza bukatzen duzunerako lanbide bat, ogibide bat ikasia duzula. Oso konpletoa da, eta ikusten zoaz zer gustatzen zaizun gehien, eta horren arabera bidea aukeratzen duzu».

«Argi nuen euskaraz ikasi nahi nuela, eta Tolosako Inmakuladak eman zidan horretarako aukera»

AITZOL URKIZA
LANBIDE HEZIKETAKO IKASLE OHIA

Julen Legarra unibertsitate ikasketak egiten hasi zen, baina, bi urtera aldatzeko beharra sentitu zuen: «Ez nuen neure burua ikusten. Lagun batek heziketa zikloaz oso ondo hitz egin zidan, eta horrela hasi nintzen Don Boscon». Unibertsitatetik desberdintasun handiak somatu zituela dio, batez ere, praktika «ugari» dagoelako eta taldeko lana lantzen delako. Hirugarren heziketa zikloa egin eta lana topatu ostean «gustura» dagoela dio: «Ziklo desberdinak eginez, zure bidea osatuz zoaz, eta hori ere oso garrantzitsua da».

Elena Begiristainek, aldiz, Batxilergoa bukatu ostean «argi» zuen kimika arloko zerbait ikasiko zuela Lanbide Heziketaren bidetik. «Don Boscon ikasi nuen, eta oso-oso da, teoria eta praktikarekin». Lehen zikloa egin eta lanean geratu zen, gerora bigarren zikloa egin zuen, eta hirugarrena bukatu berri du». Formakuntza «oso polita» eta «interesgarria» izan dela dio, eta berak ere ziklo desberdinak egitearen «onurak» nabarmentzen ditu. Lana bilatzerako orduan, berriz, ikastetxearen laguntza eskertzen du: «Lan polita bat du ikastetxeak, eta horrek ateak asko irekitzen ditu».



ESKUALDEKO ESKAINTZA BERTATIK BERTARA

Industria arloa, osasuna, gizartea, nekazaritza... ukitzen dituzte Tolosaldeko Lanbide Heziketako ikastetxeek dituzten zikloek. Bada, horien guztien inguruko xehetasun guztiak jasotzeko, hirugarrenez Lanbide Heziketa Azoka egingo dute. *Eginez ikasi, Tolosaldeko Lanbide Heziketan hasi* lelopean hartuko du Tolosako Trianguloko apirilaren 20an eta 21ean.

Tolosaldeko Lanbide Heziketako ikastetxeek antolatutako ekimen honetan, eskaintzen dituzten formazio zikloen berri emango dute. Bi egunetan banatuko da ekitaldia. Lehendabizikoa eskualdeko nahiz gertuko ikas-

tetxeetako ikasleei zuzendua izango da. Gazteek Lanbide Heziketako ikasketen ezaugarri orokorrak jasoko dituzte, Lanbide Heziketako ikasleen esperientziak entzungo dituzte eta ikasketen eskaintzaren berri izango dute, eta ikastetxe bakoitzeko erakustokian informazio xehetua izango dute.

Apirilaren 21ean, larunbata, Tolosaldeko Lanbide Heziketa ikasketa eskaintzen zuzeneko azalpenak, teoriakoak eta praktikoak, jaso eta ikusteko aukera izango du edonork, herritar guztiei, gazte nahiz helduei zuzendua izango baita.

Bost ikastetxek eskaintzen dituzte Tolosaldean Lanbide Heziketa zikloak. Lau Tolosan daude kokatuta, Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutua, Inmakulada Lanbide Heziketa Ikastola, Don Bosco Lanbide Heziketa Institutua eta Peñascal Kooperatiba, eta Zizurkilen dago Fraisoro eskola. Asotariko arloak eta maila desberdineko 25 ziklo eskaintzen dituzte orotara, eta mila ikasle inguru hartzen dituzte. Horrekin batera, aipatzekoa da, beste hainbeste pertsona hartzen dituztela langileei, langabetuei eta ikasleei zuzendutako enplegurako prestakuntza ikastaroetan.

25 ZIKLO ESKURA

TOLOSALDEA LHI

Erdi mailakoak:

- Soldadura eta galdaragintza
- Mekanizazioa
- Mikroinformatika sistemak eta sareak
- Instalazio elektriko eta automatikoak
- Merkataritza jarduerak

Goi mailakoak:

- Administrazioa eta finantzak
- Automatizazioa eta robotika industrialak
- Sareko informatika sistemen administrazioa
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
- Eraikuntza metalikoak
- Instalazio termikoak eta fluidoentzako mantentzea

PEÑASCAL KOOPERATIBA

Oinarrizko mailakoak:

- Fabrikazio mekanikoa (galdaragintza-elementu metalikoen fabrikazioa)
- Ostalaritza (Sukaldaritza eta jatetxe arloak)

INMAKULADA IKASTOLA

Erdi mailakoak:

- Mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta egiteko teknikaria
- Erizaintza laguntzailea
- Farmazia-parafarmazia

Goi mailakoak:

- Gizarte integrazioa
- Diagnosi irudia eta medikuntza nuklearra

- Osasun dokumentazioa eta administrazioa
- Radioterapia

FRAISORO ESKOLA

Erdi mailakoak:

- Lorezaintza eta loregintza
- Nekazaritza eta abeltzaintza ekoizpena

Goi mailakoak:

- Baso kudeaketa eta natura ingurunea

DON BOSCO LANBIDE HEZIKETA

Erdi mailakoak:

- Kimikagintza

Goi mailakoak:

- Kimika industrialak

“

Bagenuen entzuleekin konpartitzeko gogoa

IMANOL UBEDA
MUSIKARIA

Bi urteko isilaldiaren ostean, Bide Ertzean taldearen etenaldiaren ondotik dator Imanol Ubedaren Don Inorrez proiektu berriaren lehendabiziko diskoa, 'Mugiro bila'. Larunbatean aurkeztuko dute Donostian.

”

Iñigo Terradillos

2016. urtean erabaki zuen Bide Ertzean taldeak atseden mugagabea hartzea eta orduan ekin zion Imanol Ubedak proiektu berriari. Bi urtez aritu da Karlos Aranzadi bateria jotzailearekin abestiak sortzen. Don Inorrez izena jarri diote proiektuari eta lehen diskoa aurkeztu berri dute: *Mugiro bila*.

Talde berria, disko berria eta baita zigilu berria ere: Lizarbakar.

Autoedizioaren hautu horretan pausu

bat eman dugu eta gure argitaletxe propioa sortu dugu. *Mugiro bila* izango da gure lehen erreferentzia.

Zer aipatu daiteke sarreraren moduan, diskoaz eta proiektuaz?

Nahiz eta argia orain ikusi, azken bi urte hauetan itzalean landutako egitasmoa da; Karlos Aranzadirekin batera ondutako abestiak dira. Orain arte isilean gorde dugu eta behingoz kalera atera da. Bilatutako etenaldiaren ondotik datorren egitasmoa da.

Isilpean, sekretupean aritu zarete. Gogorra izan da?

Sekretuan ez, baina abiatu ginenean ez genuen argi noraino iritsiko zen egitasmo hau, baina kantuak egin eta kantuak grabatu ahala, gero eta argiago genuen merezi zuela. Horregatik, lanak bukatu arte ez dugu ezer iragarri nahi izaten. Oso gustura landu dugu proiektua, baina jada bagenuen behingoz kaleratu eta entzuleekin konpartitzeko gogoa. Azkenik iritsi da momentua.



Zenbat aldiz galdetu dizuete, 'eta nolatan, zergatik etenaldia'?

Etenaldia eman zenean, jende askok galdetzen zigun ea zergatik momentu horretan etenaldia. Azkenean, bizitzaren legea da; lan egiteaz aparte, familia, konpromisoak eta bestelakoak tarteko ezin genuen taldekide guztiek Bide Ertzeanen martxa mantendu eta duela bi urte luze erabaki hori hartu genuenean, Karlos eta biok hasi ginen hau guztia makinatzen. Baina azken detaileak itxi arte, isilean aritu gara lanean.

Bide Ertzeanetik aldendu nahi zenuen. Estilistikoki, estetikoki beste zerbait sortzeko gogoia zenuen?

Neurri batean normala da. Joera hori ohikoa izan daiteke gure moduko pertsonengan. Azkenean, kontuan izan behar da 18 urte egin ditugula Bide Ertzeanen bueltan eta behin etenaldia eta gero, beste proiektu berri bat martxan jartzerakoan, logikoa ere bazen, zerbait bilatu nahi izatea, aurrekoarekin pixka bat aldentzeko. Ez bakarrik entzuleei begira, baita zure burua beste soinukera batzuetan estutu eta ia horretan ere moldatzen zaren ikusteko.

Kantatzeko modua antzekoa da, hori zaila da aldatzen. Oso musikari mugatua naiz, kantua egiteko modu oso jakina daukat, urte luzez landu dudana baina soinukera aldetik iruditzen zitzai- gun, akaso Paco Loco ekoizlearen papera oso garrantzitsua izan zitekeela.

Kantuen letretan bestalde, beste bide bat egon zitekeela ikusi genuen. Askotan kritikotasunetik begiratzen diogu munduari eta letrak horren isla dira baina idazteko eta idazteko modu asko daude. Saiatu gara beste zerbait erakusten.

Izena ordea, 2010. urtean Bide Ertzeanek disko baterako erabili zuen: Don Inorrez.

Don Inorrez Bide Ertzeanen disko baten izenburua da, 2010ean plazaratu- takoarena. Egia esan, bakarkako ibil- bideari ekin nionean, Karlos Aranza- direkin batera abiatu nuenean, izena berehala etorri zen. 2010ean oso izen ona iruditzen zitzaidan. Guk diskoari izenburua eman genion eta diskoaren barruan bazen kanta bat baina bakar- lari batentzat oso izen indartsua dela iruditzen zitzaidan. Jarri niezaiokeen Imanol Ubeda baina iruditzen zait oso izen arrunta dela, ez duela gauza han- dirik esaten, gainera bizitza pertsona-

«Don Inorrez izenarekin jaso daitezke diskoan parte hartu duten musikari guztiak edo zuzenekoetakoak»

la ere badaukat, kazetaria ere banaiz. Berezitu nahi izaten dut nire ogibidea, nire bizitza pertsonala eta musikarako nire joera hau. Ezizenarena egokiena zela iruditzen zitzaidan.

Don Inorrezek badu indar bat, badu glamour bat, eta sugestio edo iradoki- zun ukitu bat; rock&rollean hori inpor- tantea da. Gainera, gerora konturatu naiz honetaz, baina iruditzen zait ezize- nak hobeto islatzen duela proiektuaren nondik norakoa. Proiektu berriari nire izena ipiniko banio, fidela ere izango zen baina are fidelagoa da ezizenaren funtzioaz. Musika lan kolektiboa da, disko bat grabatzea lan kolektibo bat da eta zu beste musikari batzuekin ari za- ren momentuan, eszenaratzea ere lan

kolektiboa da eta Don Inorrez izenare- kin jaso daitezke diskoan parte hartu duten musikari guztiak edo gero zuzenean parte hartuko duten musikari guztiak. Funtzio hori bete dezakeela iruditzen zait eta horregatik gustatzen zait Don Inorrezen hautua.

Izenak badu 'don' eta 'inorrez'. Kontraste horrek zer adierazi nahi du?

Don Inorrezen berri izan nuen Jose Mari Otamendi idazlearen bitartez. Berak esaten zuen, Urola aldean, Azpeitia inguruan, etxe batzuetan *el hombre del saco*-ren pareko zela. Umeak beldur- tzeko erabiltzen zen: «Ez baduzu afal- tzen edo ez bazara ohera joaten, Don Inorrez etorriko da eta berarekin era- mango zaitu». Funtzio hori zuen.

Guk zentzua bihurritu dugu, hustu egin dugu. Ez dugu hori islatu nahi izan. Baina kontrastea badu bere baitan, etimologikoki *don* horrek ematen diolako glamour bat, eta ondoren *inorrez* horrek ezer ez izatea, anonimotasunarekin ere lotu daiteke. Momentu batean kontras- te ederra sortzen du. Kontrastearenga- tik bakarrik deigarria izateaz aparte oso ederra da. Agian horregatik dauka duen indarra. Gustatzen zaizkit horrelako hitz jokoak. Oso artistikoa da, proiektu bat izendatzeko egokia.

Hitz jokoak gustatuta, literaturara ere jo duzu. 'Mugiro bila' izena du diskoak. Nondik dator?

Patxi Larrion idazle eta lagunak *Feria- tzaileak* liburuan erabiltzen du eta be- rak eguneroko elkarriketetan maiz erabiltzen ditu horrelakoak. Mugiro bila izango litzateke saltsa bila, akzio bila... Erdaraz baliokidea izan daiteke *movida* kontzeptua.

Mugiro berez ez dator hiztegiari. Badago Lekunberri aldean herri baten izena. Hori ere bada bihurrikeri txiki handi bat. Kantuetako letra batzuk badira nahiko bihurri samarrak, zirikatzaileak. Diskoaren izenburua ildo horretatik dator. Badu bihurrikeri puntu bat. Eta bihurrikeria horretaz aparte esanahiari erreparatuko bagenio, saltsa bila, giro bila ateratzea litzateke. Mugimendua islatzen du eta baita bilaketa ere. Bada batetik, musika munduan jarraitzeko desio hori eta bilaketa horrek oso ondo islatzen du ere zer izan den disko hau: bilaketa bat.

Bide Ertzeanekin etenaldia egin eta gero, Cadizera joan ginen Karlos eta ni, beste zerbaiten bila eta bilaketa horren emaitza izan da *Mugiro bila*. Izenburuak ere islatzen du musikalki egin dugun bilaketa edo ahalegin hori.

Hitzei erreparatuta, Bide Ertzeanen baino zainduagoak dira? Nor zirikatzeke, zer sortu nahi duzue?


Gure diskora hurbiltzen den orori, kantuak zuzenean edo plataforma digitaletan edo cd-etan entzutera hurbiltzen den orori zuzenduta dago. Ione Gorostartzuren *Bere txisteak* horretan badago tonu ironiko bat, Angel Gonzalezen *Kristoren gonbidapena* horretan badago horrelako umore ukitu bat eta azken afariaren irakurketa bihurri bat.

Guk idatzitako abestietan ere. Esaterako, *Segika* kantuan badago horrelako autoparodia moduko bat, gure buruaz pixka bat trufa egiten. Eta badira ere, egunerokoari begira kezkatzen gaituzten gauzak eta horiek ere tonu kritiko-ironiko batez landuak. *Garai postmodernoan* bezalako abestia, esaterako. Azkenean, oro har esango nuke izenburutik hasita, baduela tonu arin bat. Ez dakit lortu dugun, baina hori zen intentzioa.

Hamar kantu ditu diskoak, sei zuk idatziak dira. Beste laurak?

Bere txisteak Ione Gorostartzu idazle berastegiarrak idatzi du. *Gaur euripean* kanta Xabi Bordaren poema batekin egin nuen, *Birika zatiak* izeneko liburua plazaratu zuen Susarekin eta hortik hartu nuen letra. Eta Angel Gonzalezen poesia *Kaiera* plazaratu zuen Susak duela bi urte.

Angel Gonzalez idazle madrildarra zen, jada zendu zen baina bere bilduma bat euskaratu zuen Gerardo Markuletak eta Susak plazaratu zuen eta bertan



dago *Kristoren gonbidapena* izeneko poema. Eta laugarrena, Peio Lizarralderen testu batekin egindako *E. Jauna*. Peio Lizarralde Iruñean eman ditu urte asko, bertan jarraitzen du, berak behin letra bat igorri zidan, ea gustuko nuen eta kantu baterako proposamena bidaltzen zuen. Letra horrekin egin nuen disko honetako *E. Jauna* abestia.

Iban Zalduaren hitzak ere badaude, ez musikatuak baina diskoarekin irakur daitezkeenak.

Oso bitxia izan da. Peio Lizarralderena opari bat izan zen, nuke nuen berarengana jo, ez nion letrarik eskatu. Baina aspaldian, beste lagun batzuen bitartez, ezagutu nuen, e-mailez harremana nuen eta horrelako batean jaso nuen bere e-mail batean horrelako letra bat. Opari bat iruditu zitzaidan;

Peio Lizarralderen literatura asko maite dut, iruditzen zait Euskal Herriko nobelagile onenetariko bat dela. Niri musikan ibiltzeak ekarri didan gauzarik handiena hori da, ezagutu dudan jendea eta Peio da horietako bat.

Berarekin batera Iban Zaldia dago. Don Inorrezen diskoa grabatu genuenean, kazetariak beti diskoarekin batera promozio orri bat bidali izaten dute eta Iban Zalduari eskatu genion ea promozio orri hori idatziko zukeen. Astebetera bueltan, promozio orri bat igorri beharrean, ipuin bat igorri zidun, 16 orriko ipuin labur bat. Diskoko kantu guztiak harilkatuz horrelako narrazio bat egin du. Abestietako gai guztiak ukitzen ditu eta ipuinean bertan txertatu du horrelako iruzkin bat, disko-kritika bat. Dena dauka.

Hori jasotzerakoan, beste opari bat izan zen. Pentsatu genuen ezin genuela kazetarien artean bakarrik banatu. Horrela, liburuxka formatuan inprimatu dugu eta orain posta bidez diskoa erosten duenak edo gure zuzenekoetan gure diskoa eskuratzen duenak, oparitan eramango du Iban Zalduaren ipuina.

'Looking To Mess About'.

Hitz joko bat egiten du. *Brunch in the Lodge* izenburua jarri nion kantu bati, izenburua da ingelesez dagoena, ondoren kantua euskaraz dago. Erreferentzia egiten dio New York-eko Brooklyn auzoko jatetxe bati. Berak hari horri tiraka, buelta ematen dio, ingeleza bihurtzen du eta *Brunch in the Lodge* izenburua euskarara ekartzen du. Ispilu-joko polit bat egiten du. Hobeto ulertuko da ipuina irakurrita.

Cadizen grabatu duzue diskoa. Zer arrazoirekin?

Egitasmoa martxan jarri eta berehala, hainbat gauza modu oso kategorikoan etorri zitzaizkigun. Gu ez gara oso kategorikoak, kontrara, beti gaude zailantzez beteta. Adibidez, izenburuarena oso argi izan genuen eta ez genuen dudarik egin. Oso argi etorri zitzaigun baita Paco Locoren hautua, horretan Karlosen lana aipatu nahi dut. Paco disko honen ekoizlea izan da, asturitarra da baina Cadizen du estudioa. Kantu berriekin hasi ginenean, Karlos Aranzadik berehala esan zidan, kantu hauetarako akaso pertsona egokiena bera zela. Musikari trebea da, instrumentu asko jotzen ditu eta gainera soinu ekoizle ezaguna da, Espainian oso errekonozitua da indie musikan. Karlos bestelako musika proiektuekin han eta hemen aritu da eta aurretik grabatu du Pakorekin, ezagutzen zuen bere lan egiteko modua, maila pertsonalean ere ezagutzen zuen eta iruditzen zitzaion Don Inorrez kanta grabatzeko pertsona egokia zela.

Intuizio horri jarraika hara abiatu ginen. Lehenengo egunean jada konaturatu ginen intuizio hori egokia zela. Gure soinukera berri honen meritua Pacorena da. Pacok eman digu guk faltan genuen nortasun berri hori. Berari aitortu behar zaio. Kantuak oinarrian eramanez genituen eta hazi eta handitu eta kantu bihurtu ziren estudioan, bere eskuetatik pasa eta gero.

Zer ukitu eman dizue?

90eko hamarkadan mugimendu bat egon zen non abesti melodikoak, gitarra distorsionatuekin nahasten ziren. Hor sortu zen horrelako musika estilo jakin bat. Guk beti edan izan dugu horrik. Deabruak Teilatuetan ere bazegoen horrelako kontraste bat, horrelako abesti melodikoak, nahiz eta energiaz egindako abestiak izan, eta gitarra distorsionatuak, zaratatsuak. Paco Locok badu joera hori.

Badaude bestelako abestiak Bide Ertzeanen kutsu handiagoa dutenak, akustikoagoak, baina oro har nagusi dira power pop estilo horretan edo pop indartsu horretan energiaz betetakoak, gitarra sendoarekin uztartuak. Musiki ezaugarri hori du lan honek.

Anaiari erakutsi al zenion lana kalerara atera aurretik? Zer iritzi du?

Bai. Anaiak oso gertutik jarraitu du prozesu guztia, hasieratik bukaera arte. Orain, bestelako arrazoiengatik ezin du musika munduan jarraitu, modu aktiboan. Itzaleko lanean jarraitzen du, laguntzen digu, adibidez promozio lanean, edo zuzenekoak lotzen. Ahal duen neurrian Don Inorrez bultzatzen ari da.

«**Harrituta nago jendearen iritziarekin; poztan naiz guk genuen ideia horrekin bat etorri direlako**»

Bera da lekuko aparta. Egia esan, bera izan da, Joserrarekin batera, sustatzaileria. Izan ere, Bide Ertzeanekin etenaldia egitea erabaki genuenean, berehala esan ziguten «egin ezazue zerbait bakarka». Neurri batean animo horien emaitza ere bada lan hau.

Zuek taula gainean ikustean gogoa pizten zaio berriro bueltatzeko?

Bai. Kontua da, gogoa bakarrik balitz, nik uste jarraituko genukeela Bide Ertzeanekin eta nork daki agian beste disko bat ere kalean legoke baina anaiari orain zaila egiten zaio, familia, lana... Gu kontziente gara Bide Ertzeanen etenaldia denbora luze baterako izango dela. Horregatik oso serio hasi dugu ibilbide berri hau, azken bururaino eramango dugu. Gero ikusiko dugu jendeak nola hartzen duen eta nola funtzionatzen duen.



Jabetzen naiz, ni zerotik ez naizela hasten, badakit ibilbide bat dudala atzetik baina hasiberrien umiltasunarekin hasi gara. Eta oso kontziente gara akaso guk kristoren apustua egin dugula baina agian jendea ez zaiola gustatzen. Eta jendeak agian ez duela ondo interpretatzen eta orduan kiroltasun handiarekin eramango genuke. Orain istorio honi entzuleengana iristea falta zaio. Entzuleen feedbackarekin osatzen da. Atera berri den disko honetan hori falta da, ea jendeak nola hartzen duen, ea jendeak zer nolako iritzia duen, ea jendeak erantzuten duen zuzenekoetan. Hor ikusiko da zer nolako bidea egiten duen.

Feedback hori nolakoa izan da?

Oso ona. Pixka bat harrituta nago jende baten iritziarekin, poztan naiz guk genuen ideia horrekin bat etorri direlako, ulertzeaz aparte konpartitu dutelako. Guretzat hori inportantea da, horretarako ere egiten dugu, plazaratu eta konpartitzeko. Gero eta gehiago partekatzen bada, bide luzeagoa izango du diskoak. Hori da kantari batek edo talde batek izan dezakeen gauzarik handiena.

Jendearengana iristeko moduetako bat zuzenekoak dira. Laster hasiko zarete horretan.

Lehenengo kontzertua ostegunean Bilbon eskaini berri dugu, Kafe Antzokian, eta larunbatarekin, Donostiako Dabadaba aretoan izango gara, apirilaren 14an. Buru belarri gabilta prestatzen, oso gustura. Ruben Caballero gitarra jotzailearekin eta Fernando Era baxu jotzailearekin ari gara Karlos eta ni.

Tolosan ere izango zarete, noski.

Guk ere horrela espero dugu. Ez daukagu datarik jarrita, baina hau hasi besterik ez da egin. Aukerak egon daitezke eta gu pozarren.

Guk ere perlak sortzen ditugu

Giltzurruneke harrien inguruan hitz egingo dugu. Udarren edo behintzat tenperatura beroa izaten denean agertzen dira gehiago, hidratazio kontuengatik, batik bat. Neguan ez ditugu horrenbeste ikusten, baina baitarteka, eta etortzen direnak larri ikusten ditugu, oso mingarriak baitira. Giltzurruneke kolikoak oso mingarriak dira eta erditzean izaten den minarekin konparatu ohi dira.

Kolikoak giltzurruneke harriak sortzen direnean ematen den min horiek dira. 30 eta 50 urte inguruko pertsonengan ikusten da gehiago. Esaten da gizartearen %12ak sufrituko dituela koliko horiek eta gizonezkoetan ematen da gehiago, emakumezkoetan baino. Esaten da ere, giltzurruneke harriarengatik behin koliko bat izan duenak, gehiago ere izango dituela. Eta arazo izatera iritsi daiteke.

Guk ere perlak sortzen ditugula esan genezake, ostrak-eta bezala. Gizakiok leku askotan sortu ahal ditugu perla horiek, horietako batzuk giltzurrunean.

Zergatik sortzen dira? Gernuan materia batzuen gainasetzea ematen delako. Egoera irudikatu ahal izateko demagun baso bat ur hartu eta azukre koilarakada bat botatzen diogula, azukre hori uretan disolbatuko da, baita bigarren koilarakada bat ere, baina segur aski hirugarrena eta laugarrena botatzen baditugu azukrea ondora joango da. Berdin gure gernuan. Materia baten gainasetzea ematen bada, materia hori behean geratuko da, hondar xehea edo izango da hori, hor kristalezko matrize batzuk sortuko dira eta matrize horien gainean partikulak gehitzen joango dira eta pixkanaka, urteen poderioz, harritxoak sortzen joango dira. Harritxo horiek

giltzurruneke hodiak geratuko dira. Harria txikia bada eta nahiko leku badu, ez du eragozpen gehiegirik sortuko, baina harritxoak giltzurruneke gertu hodi mugitzen hasten bada, hau da, gertu giltzurruneke puxika edo maskurira eramaten duten hodi txoetara mugitzen bada buxatu edo trabatu egingo da, ezingo du aurrera egin. Izan ere, hodi txo horiek ez dira tutu zurrinak, gertu gerturatu ahal irekitzen doaz eta beraz, tutu txiki horretan harri txiki bat geratzen bada, gertu buxatu egingo da eta ez du utziko materia behar bezala pasatzen. Ondorioz, gertu hori giltzurruneke bi-deetan metatuko da eta mina hasiko da.

Min etengabea da eta bizkarraren inguruan sortzen da, giltzurruneke. Gertu hori pilatzen joan ahal ureter horretan distentsioa emango da eta harria bota ahal izateko espasmoak eraginez erantzungo du. Espasmo eta distentsio horiekin hasten da min kolikoa. Etengabeko mina sortzen dutela esan dugu eta tarteka zartakoak ere ematen ditu.

Sortzen diren harriak ez dira perfektuak, ez dira borobil perfektuak, ertzak izan ditzakete, puntak... eta ondorioz,

zauriak sor ditzake eta pixa egiterakoan esaterako, odol pixka bat sortu dezakete.

Larri etortzen dira minarekin etortzen direnak. Gure lehen egitekoa mina arintzea izaten da eta horretarako hanturen edo inflamazioen aurka sendagaiak erabiltzen ditugu. Behar izanez

gero, mina kentzeko bestelako medikamentuak ere ematen ditugu, baita oka ez egiteko edo ezinegona arintzeko ere. Behin hori eginda hasten dugu ikerketa. Hau da, guk jakin nahi dugu harri horiek zer diren. Harritxoaren %80 kaltzioz osatutakoak izaten



dira eta badaude estrubita dutenak ere, guk ere mineral asko baititugu.

Medio batean egon edo bestean harritxo horien materiala aldatuko da. Hau da, medio alkalino batean edo azidotasan gutxiko medio batean, estrubita edo kaltziozko harriak sortuko dira eta medio azido batean azido urikozko harriak sortuko dira. Dena den, akats metabolikoak ematen direnean ere sortzen dira. Badira beste material batzuek osatutako harriak ere, hala ere.

Orokortuz, zergatik sortzen dira harritxoak? Dietan substantzia jakin bat gehiegi sartzen dugulako. Esaterako oxalatozko harriak sortzen badira, baliatzen oxalatoa duten substantzia gehiegi sartzea; kafea, txokolata, espinakak, kola daukaten edariak... Egia da, hala ere, pertsona batzuek harri gehiago dituztela beste batzuk baino, eta hori izan daiteke pertsona batzuk ez dituztelako substantzia horiek kan-



**AITZIBER
ALZAGA**
FAMILIA MEDIKUA



poratzeko beharrezkoak diren entzi-mak. Oxalatoa hesteetan xurgatzen da batez ere, eta hori gaixotasunetan ikusten da, batik bat; zeliakoak diren pertsonengan, Crohn bezalako hesteetako gaixotasun inflamatorioetan... Baita, hesteetako kirurgiaren bat izan dutenengan ere. Nahiz eta dietan kantitate normal bat hartu, kirurgia izan dutenek arazoak izan ditzakete.

Kalte egiten diguten substantzia horien kontsumoa gutxitzea komeni da, baina egia da badaudela prebenitzeko aukerak. Aurretik aipatu ditugun medio horiek zaintzea ere komeni da, hau da, gure gernua azidoa izan ordez, alkalinoagoa bada, dietan hori kontuan hartzea komeni da. Kasu asko daude eta baten batek esango du, «ba nik ez ditut azido urikoa duten elikagaiak hartzen eta azido urikoko harriak ditudala esan didate». Hori gertatu ahal da animalia jatorriko proteina

gehiegi jateagatik, esaterako. Proteina horiek gure gernua azido uriko bihurtzen dute, eta medio azidoan azido urikozko harriak sortzen dira.

Tratamendua

Hasiera batean tratamendua jartzen dugu eta ondo badoa, jarraipena egiten dugu. Gorputza bere kabuz eta espasmo bidez harria kanporatzen saiatuko da. Zazpi milimetro baino txikiagoak diren harriekin eman daiteke hori, baina harri hori handiagoa bada, gorputzak ezingo du beti harria bere kabuz kanporatu.

Pazientea etorri eta lehen faseko pausoak emanda dena ondo joan bada, hau da, tratamenduak funtzionatu badu eta analitiketan giltzurrunaren sufrimendu daturik ez badugu, bere horretan utziko dugu. Baina pertsona hori bigarren aldiz badator ikeretzen hasiko gara, eta lehenik eta behin, harri hori ikusi ahal dugun aztertuko dugu, erradiografia edo ekografia bidez. Harria badagoen, non dagoen eta tamaina ikusi behar ditugu, horrela jakingo dugu gorputzak bere kabuz kanporatu ahal izango duen edo lagundu behar diogun. Batez ere, harri horren kokagunea da garrantzitsua, gernuari buxadurarik edo trabarik sortuko dion ikusi behar baitugu. Gernua giltzurrunean pilatuta geratzen bada kaltegarria da: batetik, geldirik geratzen den likido guztiek infekziorako joera dutelako eta bestetik, gehiegizko pilaketa horrek sortzen duen presioak berak giltzurruneko ehunak kaltetu ahal dituelako.

Prostatarako erabiltzen den tratamendu bera erabiltzen dugu ureterretako muskuluaren espasmoak gutxitu eta uretra horiek irekiago mantendu ahal izateko, era horretara harri hori behearako bidean lagunduko baitugu, beti ere, harria txikia denean.

Harria handia denean, aldiz, bere bila joan beharko gara. Kirurgia endoskopikoa egiten da orduan. Litroti-

zia erabiltzen da, hau da, ultrasoinuak erabiliz zazpi milimetro dituen harritxo hori harritxo txikiagotan puskatzen da, gorputzak bere kabuz kanporatu ditzan. Bi milimetro baino txikiagoak diren harri zatiak oso erraz ateratzen dira, baina hori baino handiagoak diren zatiak geratuz gero, kateter bat sartzen da ureterrean bertan. Funtsezkoa da beraz, elikadura zaintzea eta gainasetzea ekiditea. Behar beharrezkoa da gutxienez bi litro gernu sortzea egunean, eta horretarako likidoa sartu behar dugu gure dietan. Garrantzitsua da urteko sasoiak kontuan hartzea; neguan gutxiago beharko dugu, udaran bero latza egiten duenean behar duguna baino, behintzat.

Bestetik, animalia jatorriko proteina gehiegi hartzen da orokorrean, eta gutxitu behar da. Gernua azidoagoa izatea egiten dute, eta beraz, azido urikoko harritxoak sortu daitezke. Jakina, berdura eta fruitu gehiago jan behar dira. Fruitu zitrikoek, batez ere, zitratoa izeneko substantzia dute eta horrek kaltziozko harriak sortzea ekidin dezake. Zuntza jatea ere oso garrantzitsua da, hesteetan zenbait substantzien xurgapena atzeratu edo gutxitzen duelako. Omega 3 grasak dituzten produktuak ere oso baliagarriak dira.

Esnekiak ere aipatu nahi ditut. Esan dugu harritxo gehienak kaltziozkoak direla eta esnekiak kaltzioan dira aberatsak. Horregatik egon dira korrante batzuk esnekiak debekatuz, baina badaude ikerketak hori ez dela horren egia esaten dutenak. Beharbada, esneki gehiegi hartzen dutenei eragingo die, baina orokorrean, esnetik datorren kaltzioa behar dugu; gure dietatik bat-batean kaltzio guztia kentzen badugu arazoak sortu daitezke, izan ere, gure gorputzak kaltzioa behar du bihotzeko taupadak sortzeko eta abar, eta ez badugu hartzen, gure gorputzeko kaltzio deposituetatik hartuko du, hau da, hezurretatik.

Agenda

OSTIRALA APIRILAK 13

ALEGIA

ANTZERKIA

16:15. *Petresku*, etzi ez etsiantzezana, Elizpe zineman.

ANOETA

DOKUMENTALA

18:00. *Pasaiako Badia* dokumentala eskainiko dute gaztetxean eta dokumentalaren egileak bertan izango dira.

LEABURU

BILERA

19:00 Leaburu-Txaramako Sanpedroak antolatzeko bilera deitu du udalak. Udaletxeko pleno aretoan elkartuko dira.

IBARRA

GIZA KATERAKO IZEN EMATEA

19:00. Ibarra Gure Esku Dagok, ekainaren 10ean egingo den giza katean parte hartzeko izena emateko aukera jarriko du, Danon Txokoa tabernaren aurrean.

MUS TXAPELKETA HERRIKOIA

22:00. Ibarra IV. Mus Txapelketa Herrikoiko lehen kanporaketa jokatu da, Xepa elkartean. Bikoteko 20 euro ordaindu beharko da.

TOLOSA

BERAZUBIKOI. GASTRONOMIKA

19:00. Ketxus Martinezen menu osasuntsuak.

19:30. Tolosako I. Patata Tortilla Lehiaketa.

20:30. Patata tortillen aurkezpena epaimahaiari.

21:00. Sari banaketa.

AURKEZPEN INAUGURAZIOA

19:00. *Boinas Elozegi*, 160 urte liburuaren aurkezpena pleno aretoan egingo da, eta jarraian, Boinas Elosegiren erakusketa inauguratu da, Aranburu jauregian.

IKUSKIZUNA

20:30. *Itzal zaunka*, kontzertu irudikatua da, zuzeneko emanaldi-ikuskitzuna, musikaz, kantuz eta bideoez osatua. Topic zentroan.

ZIZURKIL

BATZARRA

16:00. Elizpe erretiratu elkarteak batzarra egingo du.



ONINTZA ENBEITA ETA KATTALIN MINER, IKAZTEGIETAN

Gazte Eguna edo gazte sentitzen direnen eguna ospatuko dute lehen aldiz, Ikaztegietan. Eguna indartsu hasiko dute bihar, eta hizketarako, hausnarketarako eta eztabaidarako aukera izango dute Onintza Enbeita eta Kattalin Minerren galde-erantzunetara gerturatzen direnek. Baina, kiroletik eta festatik ere izango du egunak, kontzertuekin amaituz. ATARIA

LARUNBATA APIRILAK 14

ALKIZA

SLOW ART DAY

12:00. Slow Art egunarekin bat egingo du Ur Mara museoak, eta sarrera doan izango da. Artisten presentzia eta iritziarekin ikusi ahal izango dira ondorengo lanak: Myriam Gesalagaren *Lur mara* serigrafia, Irantzu Lekueren eskultura kontzeptuala, Mari Jose Recalderen *La madre* 2005 eta Koldobika Jauregik berak *Formas en crecimiento* 1994an egindako bideoa erakutsiko du, 1994an Donostiako Intxaurrondon jarritako harritzko eskulturari buruzkoa. Ondoren, bazkaria egingo dute.

IBARRA

IRTEERA

09:00. Bizi Nahi elkarteak irteera egingo du Lizarrara. Lehen geldialdia Garesen egingo dute.

TXIRIBITU EGUNA

10:00. Puzgarriak, plazan.

12:00. Pintxo lehiaketa.

14:30. Bazkaria.

Ondoren. Ekitaldia eta Errukirik Gabe musika taldearen kontzertua.

GIZA KATERAKO IZEN EMATEA

10:00. Ibarra Gure Esku Dagok, ekainaren 10ean egingo den giza katean parte hartzeko izena emateko aukera jarriko du, goizean zehar, plazan.

IKAZTEGIETA

GAZTE EGUNA

11:00. Onintza Enbeita eta Kattalin Miner, galde-erantzunetan.

13:00. Frontenis Txapelketako finalak. Eta sorpresa.

14:30. Bazkaria, eta ostean, bingoa.

17:00. Elkartasun argazkia. Altsasuko gazteen aldeko manifestazioari atxikimendua adierazteko.

Ondoren. Poteoa.

21:00. Zahagi-ardoa.

23:30. Kontzertuak. TPR, Estarlus eta Katez.

IRURA

KIROL ASTEA

16:00. Frontoian frontenis txapelketa Gaztelekukoentzat.

TOLOSA

ESTENOPEIKA ARGAZKI TAILERRA

10:00-13:00 / 15:00-18:00. Kartoizko kamera batekin argazkiak atera daitezke? Ibon Azpillikuetaren eskutik izango da tailerra, Box.a elkartean.

BISITA GIDATUAK

11:30 / 12:30. Bisita gidatu dramatizatuak izango dira Topic zentroan. Ordubeteko iraupena izango dute, eta lehen saioa euskaraz egingo dute eta bigarrena gaztelaniaz.

BERAZUBIKO I. GASTRONOMIKA

10:30. Eskualdeko etxeen lehen jardunaldiaren hasiera.

16:30. Bertsolariak.

17:00. Herri kirolak.

18:30. Postre lehiaketa.

19:00. Sari banaketa.

SENEGALGO INDEPENDENTZIA

17:30. Senegalgo Booloo elkarteak ospakizuna egingo du, kultur etxean.

MUSIKA

22:30. Skarra Mucci eta Dub Atom Band (Jamaika). Selektah Step, Little Martin Selektah, Bonberenean ariko dira.

MUSIKA

23:00. Makala Selects. Boom Shaka Laka, Eguzki tabernan.

MUSIKA

00:00. Reggae Gaua. Dj Arki, Sugar Sugar tabernan.

IGANDEA APIRILAK 15

BERASTEGI

MENDIIRTEERA

09:00. Adin guztientzako moduko ibilbidea izango da, herri ingurutik urrundu gabe, Berastegi herria ezagutzeko. Plazatik abiatuko dira, eta herritar guztiak animatu nahi dituzte parte hartzera. Hiru ordu eta erdian egingo da. Aldin Mendi elkarteak antolatuta.

AMASA-VILLABONA

MENDIIRTEERA

07:00. Olaederra kiroldegitik abiatuko dira Bizkaia aldera Aizkardi mendi taldekoak. Anboto mendia igoko dute, eta jarraian Udalaiz eta Besaidetik barrena Udalara joango dira 19 kilometroko ibilbidea eginez.

ANTZERKIA

19:30. *Barro Rojo* antzezlan, Gurea antzokian. Javier Liñera izango da aktorea. Sarrera: 6 euro.

IRURA

KIROL ASTEA

11:30. Katategi industriagunean gazte mailako patin lasterketa. Gipuzkoako txapelketa.

Ondoren. Patin lasterketa herrikoia sei urtetik gorakoentzat eta segidan, patin lasterketa herrikoia helduentzat.

16:00. Xare partidak trinketeen.

TOLOSA

BERAZUBIKO I. GASTRONOMIKA

12:00. Tolosako elkarte desberdinen arteko bakailao lehiaketaren hasiera.

13:00. Bakailao plateren aurkezpena epaimahaiari.

13:30. Sari banaketa.

14:30. I. Gastronomikaren amaiera bazkaria.

BALLETA

12:00. Tolosako kultur etxeko dantza ikasleak (7 urtetik gorakoak) eta Beasaingo ballet taldeko ikasleak ariko dira Oriako barandillan, Zerkausian, Katixa Pereak koordinatuta.

MENDIIRTEERA

07:00. Ibañeta-Orraga (Nafarroa Garaia) eta Banka (Nafarroa Behera) lotzen dituen ibilbide erakargarria egingo du Alpino Uzturrek, San Frantzisko pasealekutik abiatuta. Ipariako harresiak, Auzak, Iratiko mendiek, Pirinioetako mendi garaiek eta Donibane Garaziko haranak eskaintzen duten ikuspegi paregabeaz gozatzeko aukera izango da.

ASTELEHENA APIRILAK 16

ANOETA

BILERA

16:00. Herriko festetan indarkeria matxistari aurre egiteko protokoloa lantzeko saioa izango da.

IRURA

KIROL ASTEA

17:00. Plazan umeentzako herri jokoak

erretiratuek gidatuta. Ondoren, merienda izango da parte hartzaileentzat.

TOLOSA

ODOLE MATEA

18:00. Hileroako odol-ateratzea izango da. Kultur etxeko Topagunea gelan, 1. solairuan. Txandarako zenbakiak sarreran uzten dira egunean bertan, 17:30etik aurrera.

ZINEMA

CALL ME BY YOUR NAME

Larunbata (19:30).
Astelehena (22:30).
Ikuslearen eguna.
Jatorrizko bertsioan,
gaztelarazko
azpidatziekin.

Leidor, Tolosa.



EL REINO DE LAS RANAS. MISION EN EL ARTICO

Igandea (17:00).
Haurrentzako filma.

Leidor, Tolosa.



SIN RODEOS

Larunbata (22:30).
Igandea (19:30 eta
22:00).

Leidor, Tolosa.



THELMA

Larunbata (19:30 eta
22:00).
Astelehena (21:00).
Ikuslearen eguna.

**Gurea,
Amasa-Villabona.**



Altsasugatik Iruñeara



UNAI MENDIZABAL

Delitu bada izate hutsa gaztea ta euskalduna, erreminta bat bada edonor bihurtzeko erruduna, zeharo galdu badu zentzua ta proportzionaltasuna justizi deitzen dioten honek non du zilegitasuna? Iruñea da tokia eta larunbata da eguna gazteek gertu senti dezaten guztion elkartasuna.



Doinua

Kintak jarrita ondorenia

Mila esker

Besterik ez esateko. Plazer bat izan da azken aste hauetan bost emakume kirolarirekin elkartu, hitz egin eta bizi duten errealtateaz jabetzea. Horrelakotan, entzutea izaten baita botikarik onena. Aspalditik nuen buruan kirolarekin lotuta horrelako zerbait egitea eskualdean. Hala ere, orduan ez nuen uste bost emakume biltzera helduko nintzenik. Elite mailan dabilzan bost neska gazte, gainera. Eta, uste dut horrek are gehiago motibatu ninduela. Ea ba hemendik aurrera, egunerokoa, orain bezain beste orrialdetan agertzerik duten.

Aurrerantzean, beti gogoratuko ditut haiek kontatutakoak, bai kamera

aurrean, baita grabaketatik kanpo ere. Izan ere, nabaritzen zitzairen, bazutela gauzak argi esateko gogoia, jendea (batez ere gizonezkoak) kontzientziatzeko gogoia; azken finean, bizi duten egoera salatzea beharrezkoa dute. El-karrizketak amaituta, gehiago askatu ziren bostak. Orduan hasi ziren grabatu gabe geratu ziren kontu gehiago esaten, pisu handiagoa askatzen. Pena da horiek ez jaso ahal izatea. Hori-entzunez gero, bati baino gehiagori ikasgai ederra emango liekete. Baina noski, emakumezkoak dira.

Hori izaten da gehien gorrotatzen dudana esaldia. Zenbatetan entzungo genuen hori? Eta zenbatetan ez genion jaramonik egingo esanahiari?

Zapalkuntzagatik gutxiago jasotzen dute, gutxiago hitz egiten dute, gutxiago ikusten zaie, baina ez dute gutxiago lan egiten. Entrenamenduetan maila berean sakrifikatzen dira, baina ez dute soldata bera jasotzen. Txapelketak irabazten dituzte, baina zorion-

du besterik ez dituzte egiten, etxera bueltan bidali aurretik. Ez da bidezkoa. Noraino heldu nahi dugu? Oraindik ere gizonezkoei proba berean 100 aldiz handiagoa den saria emango diegu?

Hala ere, oraindik zalantza handiak ditut. Ez erreportajearekin noski, baizik eta esaldi nagusiarekin. Ez baitakit natura izan ote den banaketa horren

erruduna, edo ingurugiroa, gizartea edo dena delakoa. Baliteke, zenbait eta zenbait buruhauste sortu izana titularra lehen begiradan irakurri ostean, eta kultura, gizartea edota generoa izatea ezberdintasun hori jazo-zearen arrazoia. Hobeto esanda, naturak erabakitako zerbaiten aurka egi-


tea, antinaturala da, eta ez da hori esan nahi nuena, eta are gutxiago neska hauek egiten dutena. Honengatik eta gehiagorengatik, beraz, mila esker neskak!

Eta zorte on hemendik aurrera lanean gogor aritzen jarraitu beharreko bide horretan.



JOSU ARTUTXA
DORRONSORO
IKASLEA

Zapalkuntzagatik gutxiago jasotzen dute, gutxiago hitz egiten dute, gutxiago ikusten zaie, baina ez dute gutxiago lan egiten



«Pixka bat es mucho eta asko mogollon»

Hamar urte egingo ditu datorren udan musika eta letra hau martxan jarri zela, Euskara Politika zerbitzutik bul-tzatutako kanpaina baten abestia izan zen. Gaurko honetan ez noa euskararen egoeraz eta beharraz hitz egitera, badakigu hau eguneroko militantzia dugula gure eguneroko bizitzarekin. Oraingo gaia krisiaz eta ekonomia-aren ezinegonaz doa.

Ezer berririk ez noa idaztera. Giro guzti hone-tan planeta urdin honi begirada bat bakarrik egin nahi diot. Batzuetan lotsatzen naiz gure ma-paundia hiru edo lau mundutan ba-natzen dugunean. Gainera ohitu egin gara. Geure hizkeran hala diogu: bada hirugarren mundu bat, aberatsa; bada hirugarren mundu bat, pobrea; eta bada laugarren bat, oraindik pobrea-goa eta hiri handien alboan dagoena. Honela izan omen da, horrela omen dago mundua, eta horrela egongo dela beti pentsatzen dugu, hori kon-pondu behar litzatekeela esaten ba-dugu ere.



**JOXE AGUSTIN
ARRIETA**
IRAKASLEA

Hirugarren eta laugarren munduaz hitz egiten ari bagara, noski, gizon-emakumeei buruz ari gara, herri po-break edo aberatsak gizon eta emaku-me pobre eta aberatsez osatuak bai-taude. Ez nuke urrutira joan behar, nahikoa da geure ingurura begira-tzea. Ez dugu ahaztu be-har, lanik ezak edo lanbi-de prekarioak jende asko uzten duela gero eta pre-mia gorriagoan. Urrutiko po-break eta bertako po-break ezin baititugu ahaztu.

Askotan entzun eta esan ohi dugu, gu garela aberatsak, nahiz eta ondasun ikusgarriak ez eduki pilatuta. Gu gara aberatsak, on-gizatearen eta kulturaren zortea toka-tu zaigunak. Nik ez dakit *pixka bat es mucho* edo *pixka bat es poco* zer izan-go den. Baina benetan zoriona eskura-tu nahi duenak, solidaritatearen alde-ko apustua egin behar du garbi, giza-eskubideak eskaintzen duen zoriona baldin bada bilatzen duena behintzat.

Nola ez! *Pixka bat es mucho* esaldi hori egia bihurtu daiteke: sufrimen-duan dagoenaren gertuko banaiz, ka-

leko eskaleari atea ixten ez diodan neurrian, erietxean inork bisitatzen ez duen adinekoa edo ikasle atzera-tu edo trakets horri denbora eta ha-rreara ematen diodan neurrian... bada udaberri berdea, bada espe-rantza; edo Hirugarren Munduko po-brean alde saiatzen ari diren era-kundeak babesten ditudan neu-rrian, bada itxaropen, bada pauso erabakigarria, duina eta zuzena. Gure pentsiodunen eta erretiratu-en aldarrikapenak ere hemen doaz. Besterik ez, bakarrik bizi, maita eta estimatu.

Nik ez dakit pixka bat 'es mucho' edo pixka bat 'es poco' zer izango den. Baina benetan zoriona eskuratu nahi duenak, solidaritatearen aldeko apustua egin behar du garbi, giza-eskubideak eskaintzen duen zoriona baldin bada bilatzen duena behintzat

EGURALDIA



OSTIRALA

Eguraldi nahasiarekin jarraituko dugu. Goizean hego-mendebaldeko haizearekin giro lasaia izango dugu, non hodeiak eta ostarteak izango ditugun eta tenperatura balio atseginetan kokatuko den, maximoak 14-16 gradutan geratuz. Egurditik aurrera ordea, hodeiak ugartu eta euritara joko du. Zaparrada tartekatuak izango dira, tarteka mardul xamarak, ekaitzen bat leher litekeenik baztertu gabe.



**IKER
IBARLUZEA**
EGURALDI
MUTILA

LARUNBATA

Eguraldi lasaia izango dugu. Hodeiak eta ostarteak tartekatuko zaizkigu egun osoan. Goizean giroa argiagoa izango da eta arratsaldean aldiz hodeiak ugartu egingo zaizkigu. Hala ere, ez du euririk egingo eta giro lasaiaz gozatzeko aukera izango dugu. Tenperaturak igo egingo dira eta balio atseginetan geratuko zaizkigu, maximoak 17-19 gradutan kokatuz.

IGANDEA

Giro nahiko lasaia, baina zertxobait kaxkartuko zaigu. Goizean eta eguerdira bitarte hego-mendebaldeko haizea eta giro lasaia izango ditugu. Hodeiak eta ostarteak eta tenperatura oso atsegina izango da, non maximoak 20-22 gradutan kokatuko diren. Arratsaldean haizeak mendebal/ipar-mendebaldeko ukitua hartu eta hodeiak ugartuko dira. Tarteka zaparrada ahulen bat edo beste izango da, baina oso gutxi botako du.

OSTIRALA
13



IGANDEA
15



LARUNBATA
14



ASTELEHENA
16



ZORION AGURRAK

Urtebetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak,
jaioberriak...

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

FARMAZIAK



APIRILAK 13, OSTIRALA

TOLOSA

Egunekoa. Etxebeste, J.M.

Gernikako Arborearen lorategiak, 3.

Telefonoa: 943 65 10 40.

APIRILAK 14, LARUNBATA

TOLOSA

Egunekoa. Etxebeste, J.M.

Gernikako Arborearen lorategiak, 3.

Telefonoa: 943 65 10 40..

APIRILAK 15, IGANDEA

TOLOSA

Egunekoa. Olarreaga, M.

Martin J. Iraola etorbidea, 10.

Telefonoa: 943 67 24 38.

APIRILAK 16, ASTELEHENA

IBARRA

Egunekoa. Mujika, E.

Euskal Herria kalea, 3.

Telefonoa: 943 67 09 15.

EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO FARMAZIA:

TOLOSA • Morant, R.

Zabalarreta Lorategiak, 1.

Tel.: 943 67 38 49.

ATARIA IRRATIA



OSTIRALA

09:00. Pasahitza. Iker Ibarluzearen eguraldi iragarpena, solasaldi politikoa Garbiñe Biurrun, Juan Inazio Hartsuaga eta Maddi Sarasolarekin, Galtzaundiren Hitzez Hitz atala Igor Agirrerekin eta azoka.

11:00. Hamaiketako. Aiztondo

Anoetaidea inguruko berriak.

12:00. Entzuteko Jaiok. musika saioa.

18:00. Goizeko saioen onena.

20:00. Kantazgora musika saioa.

21:00. Mingaina txulora sexualitateari buruzko saioa.

LARUNBATA

11:00. Trikiti musika.

14:00. (H)ari naizela. Imanol Artola Felix-ek gidatutako bertso saioa.

16:00. Entzuteko Jaiok.

17:00. Kokondo. Oskar Tenarekin.

18:00. Entzuteko Jaiok.

21:00. Playback Ataria. Adrianna Gaultirrek gidatutako musika saioa.

IGANDEA

10:00. Asteko onena.

16:00. Entzuteko Jaiok.

17:00. Kantazgora musika saioa.

18:00. Entzuteko Jaiok.

ASTELEHENA

09:00. Pasahitza magazina. Iker

Ibarluzearen eguraldi iragarpena, asteburuko erreposoa, agenda, Iñaki Zubeldia kale kantoitik eta bidaiariaren tartea Agurtzane Belauntzararekin.

12:00. Entzuteko Jaiok musika saioa.

16:00. Zebrabidea.

18:00. Goizeko saioen onena.

107.6 fm
www.ataria.eus

28 KANALA



OSTIRALA

12:30. 1,2,3 Hemen da Miru.

13:30. Gaurkoan Tolosaldeak.

17:30. Gaurkoan Tolosaldeak.

21:30. Gaurkoan Tolosaldeak.

22:00. Ikusten da.

22:30. Kulturizketak.

23:30. Gaurkoan Tolosaldeak.



Saridunak

Atarikideentzat **bi sarrera** ditugu



**DELTECO GBC - Monbus
Obradoiro** partida ikusteko

• Patxi Galarraga (Villabona)

Apirilak 15,
18:00etan, Ilunben.

ATARIA jarriko da zurekin harremanetan



ATARIA jarriko da zurekin harremanetan

Atarikideentzat **tarta bat** dugu

Berazubi auzoko I. Gastronomika jardunaldien
tarta irabazlea:

• Ander Figuerido (Tolosa)

ametsak eraikiko
bagenitu?

Batxilergoko matrikulazioa
Maiatzak 2tik 14ra
Ateak zabalik Apirilak 18
17:00-19:00
hitzordua hartzeko
943670311 zenbakira deitu

R.P.S. 175/15 I.L.G.

Konsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Zure gogokoak diren eskaintza batzuetan erabili.

Gure betaurreko guztiak
2018 bildumakoak dira

Arrasate • Bergara • Beasain • Donostia • Eibar
Errenteria • Irun • Lasarte-Oria • Ordizia

Gama altuko

2mō
betaurreko
progresibo

249€

GRADUAZIO GUZTIETARAKO

www.multiópticasgipuzkoa.com

San Frantzisko, 23 • Tel.: 943 69 84 70 • TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehen a zerbitzu optikoetan

Gonbidatu zure ingurukoak gure dantzara. Gonbidatu Atarikide egitera.

Ez da harpidetza kanpaina soil. Ez da sostengu ekonomikoa bilatzeko saiakera. Edo ez behintzat hori bakarrik; egia da, Atarikide gehiago behar ditugula eta erronka berriei aurre egiteko baliabideen premia dugula; baina hori baino gehiago da kanpaina: TOLOSALDEKO ATARIA-k eskualdean duen oinarri soziala zabaltzeko urratsa eman nahi du.

Eta pauso hori egiten duzunean izango gara.



ataria.eus/harpidetza
943 65 56 95
San Esteban, 20. Tolosa.

